

anaitasuna

1982.eko OTSAILA - 417. ALEA - 100 PEZETA



eta

HADE

• Ale honetako
dossiera

- * J.L. Davant-ekin
elkarrikuska
- * Fedea eta kultura
- * Arrantza Euskal
Herrian (I)

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALZAINDIA
BILBO

11863

1 MAR. 1982



egizu publizitatea
zure
gure
aldizkarian
Telf. 94/411 66 20

anaitasuna

AURKIBIDEA

3.or.: Aurkibidea
4.or.: Ordutik hona
Hileko Dokumentua



7.or.: Arrantza Euskal Herrian (I): Arrantzak arazo gorri eta gogorak ditu izan, hori dela eta ANAITASUNAK egoera horretarantz hurbiltzea erabagi du. Hona hemen Euskal Herriko Arrantzaz eginiko lehen hurbilketa, arrantza zer ote den azaldu nahiz.

Euskal Herria



11.or.: Gotzon Garate "Azkue" nobela sariaren irabazlea.

14.or.: Aizu! Euskara erazean soturiko aldizkaria.



12.or.: Iazko kazeta zenbait.

Elkarrikuska



16.or.: Jean Luis Davant dugu orango honetan mikroaren aurrean. Dela gutxi Bilbon izan genuen irabazitako sari bat hartzen, gaur ANAITASUNAN dugu bere izaera, kezka eta nahiak azaldu nahiz. "Idaztea droga bat dugu, bizitzeko behar den zerbait" -digu Davantek.

Dosierra



23.or.: Euskararen irakaskuntzan badira talde ezberdinak. HABE eta AEK ditugu hortaz ari diren bi. Txabarri eta Naberan, lehena HABEkoa eta bigarrena AEKkoa aldiz, batu genituen gure etxean haien asmoak eta dudak argitzeko. Bestalde, hau dossierau, sail berria duzu, jarraipena izango du urrengoa Euskal Literatura berzkatuko duelarik.

Ekonomia



29.or.: Yankiak aurrezkia-
ren auka omen.

30.or.: Komikia

31.or.: Bertso-Paperak

Erligioa

32.or.: Fedea eta Kultura. Hau ere sail berria. Paulo Agirrebaltzategi eta Esteban J. Agirreren esku agertuko dena. Sailaren zergatia bertan duzue.

Musika Kritika



34.or.: Itoiz grabatzen, Oskorriren Addio katalin, Don Nemesio Etxanizen boleroak eta txatxatxa, Karrozzak bilbainadak kantzatzen.

Gaur idatzia

37.or.: Ni teknikoa naiz. Julen Kalzada hurbildu zaigu gaurko idazleei eskeini nahi diegun sail berri honetara. Ia besteok, kotsagratu eta ezkontsagratuok berotzen zareten!

Gaiak

38.or.: Zinema kritika Xabier Portugalen desku.



39.or.: Txipiroien bat edo beste liburuaren komentarioa.

40.or.: Amurizaren azken bi liburuak

42.or.: Protoien indarraren kontra: potroen indarra (II)

43.or.: Gramatika. Disko-diska: nola demontre finkatu behar dugu hitz hau?

44.or.: Euskal Antzerki taldeak jo eta ke lanean.

46.or.: Gure Demokrazian.

ABENDUA

21

Gaur Santomaseko feria. Egun euritsua eta haize hotzak ez du bat ere lagundu. Baina eguraldia ez da oztopoa izan eta jendea erruz bildu da Donostiak Konstituzio Plazara eta Bilbon Plaza Berrira zerbait jateko asmoz edo eta giroa ikusteko.

Bilboko Plaza Berrian bertsolariak izan ditugu. Hantxe aritu dira Enbeita, Ezponda, Lopategi, Lazkao Txiki eta Amuriza, jo ta ke bertsoan eta badirudi bertara hurbildu direnak pozik etxeratu direla. Arratsaldean haizkolariek euripean ekin behar izan diete enborrei, nafarrek eta giputzek, Nafarroakoek irabazi dutelarik. Eguraldi txarra izanik ere humorea ez da falta, gainera jendea ardoa eta txorizoaren laguntzaz barre eta alai.

Donostiakoan aurtengo ospakizunik bereziena Txorimalo lehiaketa izan da, ohitura galdua edo ia galdua berpizteko asmoz antolatua. Ikastola eta eskoletako umeen barre eta algarabak entzuteko lekuri proposena. Eta txerria ez da guretzat izan, hurrengoan zorte hobea espero dugu.

22

«Resurrección M.^a de Azkue» eta «Villa de Bilbao» literatur sarien banaketa izan da gaur Bilbon eta sarituak izan zirenak erdal herri honetara hurbildu dira. Erderazko sarietan Jose Maria Requena genuen eta euskarazkoetan Gotzon Garate eta Jean Loui Davant literatur sailean. ANAITASU-NAren ale honetan Davantekin egindako elkarrizketa irakurtzeko aukera ederra duzue.

Futbolean atzo Realak irabazi Osasunaren aurka ganorabako partiduan, 1-0. Hoberena giroa, euskal giroa. Gero PSOEko nafar bu-

ruek Nafarroa ez dela Euskal Herria oihukatzeraz ekingo diote.

23

«Zoritxarrez euskaraz oso gutxi idazten da-diosku Gotxon Garatek gaurko egunkarian-ni abade naizenez gero jatekoa zihurtaturik daukat eta idazteko problema gutxiago «Eta gero jarraitu» txarrena ateratzen diren nobelak ez direla irakurtzen da «Eguneroko problema, Euskal Herriari dagokionez behintzat. Beste batek zionez «Bilbori euria dagokio, Euskal Herriari ordea ez irakurtzea» Bitartean denok militanteen beharra aipatzen, hori bai baikoitzak bere erara interpretatuz. Kalteak Euskal Herriarentzat, guretzat.

24

«S.A. Echevarria» lantegiko langileen asanbladak lanera bueltatzea erabaki du, CCOO, ELA eta UGT sindikatuen akordioak onartuz. Lanera itzultzearen kontrakoak LAB eta CUTI. LSB-USO sindidatuak «beste irtenbiderik ez zegoelako» aldatu du bere eritzia, baieztatzeko alde baina ez gustora» langileen lanpostuak zihurtatzen ez baizituelako». LAB eta CUTI gogor mintzatu dira akordioaren kontra.

Ipar aldean euskarazko lehen irratia gaurtik martxan dago. Arratsaldeko zazpitan hasiko ditu bere irratsaioak «Gure Irratia» deitutako irratia. Irratsaioak 94,5 negaziklotan, FM bidez. Gaurtik aurrera beste irratia berri bat, Iparraldetik datorrena, Ipar Euskal Herriko, eta hegoaldeko noski, lehen euskal -euskara duen- irratia. Zorionak!!!

24

«Hato, hator mutil etxera, gaztaina zimelak jatera.

Gabon gaba ospatuzeko aitaren ta amaren ondoan. Ikusiko ondoan. Ikusiko duk aita barreka, aita be poz atseginez. Eragiok mutil aurrengo danbolin horri, gaztainak erre artian txipli-txapla-pun! Gabon gaba pozik igaro daigun».

25

Polonian eta Euskal Herrian negu gogorrak, hainbat etxetan jai zoriontsurik ez. Poloniako egoera gero eta larriago eta Euskal Herrikoa ez da desberdina. Presoak gose greban, manifestazioak kalean, eta ezin achantzi ere zenbait etxetan bizi den larrialdia. Ume askok ez du Olentzerorik izango, erregerik ezta.

27

Gaurkoan zera irakurtzen dugu: goardia zibil lapur hori expulsatua izan dela. Jose Martin Molina ei da gizajoa. Oraingoa bai krisialdi gogorra!

San Mamesen Bilbo-Real eta gero manifestazioak, Bilbon eta Donostian. Baina gaur gehien kezkatu gaituen Iberdueroren hitzak izan dira. Iberduerok komunikatu bat zabaldu du «Lemoizen egoera, honela eta luzarora, eutsi ezina» dela esanez. Komunikatu hau Gasteizko Parlamentuan izandako eztabaidaz dator. Eztabaidaren ondoren enpresa honek argi eta garbi ikusten du zentralaren beharra, honen indarra beha-



Zenbait etxetan larri esan dugu eta hala dirudi. Iruñean gizon batek abade buri kartera lapurtu omen zizkion. Aspaldian diru falta edo nabaritu zuten San Frantzisko elizako abadeek eta zuhur ibili. Azkenean lapurtzako harrapatu eta, hots, goardia zibila dela. Mundu honetan denetarik.

rezkoa dela, leku seguruan kokatua dagoela eta tatarixun eta tatatxan.

28



Gasteizko gobernuak edo PNV delakoak gogor salatu du Iberdueroren komunikatua. Baina «kietoparao»! Iberduerok esandakoak ukatu gabe.

Herri Batasunako junte-roek instituzioak uztea erabaki dute. Erabakia sei hilabeteko asanblada eta eztabaiden ondoren dator. Yeun, bitartean, bertan bizitzera behartuak dauden presoek hamalau egun daramatzate gose greban nonnahi bizitzeko askatasuna eskatuz. Presoak hauek dira: Joxe Arrugaeta, Xabier Arin, Miguel Aldana, Anjel Gurmindio eta Tomas Linaza.



EUSKALTZAINDIA

Bestaldetik Euskaltzaindiak ez duela titulo gehiago banatuko Bizkaiko, Gipuzko eta Arabako herrialdeetan irakurtzen dugu gaurko egunkarian. Erabaki hau Hondarrabiako biltzarrean hartu du eta hiru probintzi hauetan tituloen banaketa Eusko Gobernuari eskeini nahi dio, baldintza batzu jarriarik. Nafarroan lehen bezalaxe jarraituko du Euskaltzaindiak berak tituloak ematen eta Ipar aldean bertako euskaltzainek erabaki beharko jokabidea.

Julio Iglesias kantaria -kantaria ote? - Beno Julio Iglesias delakoaren aita bahitua izan omen da.

Eta urtea bukatzera doa, gaur azken eguna, bihar urteberri. Eguraldi txarraz sartzen gara urte berrian.

A! Zorionak Joxe Miel. (Badaezpadan Joxe Miel Barandiaran).

URTARRILA



1

Errenterian Goardia Zibilak pertsona bi zauritu, 7 urteko mutil bat eta 68 urteko agurea. Gobernu zibilaren agiria barregarria txo! Zoritxarrez barreak ez dira merkeak izan pertsona bi zaurituak izan baitira. Aspaldikoak izanik euskaldunak ohituta gaude halako agirietara.

2

Arrantzaleak greban. Itsasoko langileok berriro grebara jo behar. Ez da bakarra izan, ezta azkena.

3

Errenteriako udalak gertatutakoaren argitasun eta erresponstabilitateak eskatu ditu FOPen ekintza salatu. Errenteriako Aministiarren aldeko batzordeak mozio bat aurkeztu zuen atzoko udal batzarrean «joan daitezela» ezkatuz eta onartua izan zen HB eta EEren botuei esker. PSE-PSOE kontrakoa izan zen eta PNVak ez zuen botorik eman.

4

Bilboko «Galerias Isalo» delakoen sekulako sutea izan zen atzo. Sua dantza leku batetik etorri omen

zen baina nola ez da oraindik argitu.

Yeseriaseko Gartzelan gose greban dauden emakumeen artean 2 hospitale-ratuak izan dira. «Gartzelako bizitza gogorra da-maitasun falta, afektu eza, adiskide minenak urruti, norberaren herria eta ingurunea, senideak eta abar-eta sufrimentuz beteriko bide larria, baina hori dela eta, gure bide iraultzailea abandonatuko bagenu, orduantxe bai esan genezakeela «gureak egin du». Gure jokaera zenbat eta erabetiagoa izan, orduan eta gogorrago zanpatuko gaituzte. Beraz zer egin? Borrokatu.

«Gose greba bat egiteko moralez gainezka eta zerbait positiboa egiten ari dela sinetsia egon behar da, bestela, ezinezkoa litzateke, baina moral hori betetzeko bakarrik ez gaudela sentitzea, zulo honetatik kanpo badagoela gutaz arduratzen den zenbait jende. Amestu ere ezin dezakezue, zenbat suposatzen duen guretzat, manifestazioen bat edo enzerronaren bat ospatu dela jakiteak. Horrexek ematen digu aurrera gogor jarraitzeko kemena, zeren ba dakigu bide horretatik lehenxeago edo geroxeago garaile irtengo garela» (gartzelan dagoen neska baten hitzak).

5

«Triple A» erakundeak hartu du bere gain Berasategin agertutako taxistaren hilketa. Erruz izan dela adierazi du talde honen kide batek, erakundeak hila izan zuten taxista beste bat zela esanez.

6

ETAko omen diren gazte batzuk Getxoko Lipperheide enpresarioa bahitu dute. Arratsaldean ekintza honetaz ETA bera jabetu da. Lipperheide bera eta senideko beste anaia batzuk ere zenbait enpresaren jabe edo partaide dira eta zerga iraultzailea eskatzeko asmoz bahitu omen dute.

Harrisburg zentral nuklearrean berriro prolemak, beste. Eta honekin zenbat doaz? Euskal Herrian ere prolema bera izango ote dugu? Parlamentuaren erabakia bide horretatik doa eta Madrilek ez du erreferenduma onartuko. Bitartean herria Lemoizen aurka eta biziaren alde. Egia esan potoetaraino gaude.



Gaur hilargia izkutatu egin zaigu eta izkutatzea Euskal Herriatik oso ongi ikusi da. Au bai mundu ederra! Tamalez apurtu behar. Egunen batetan umeek diapositiba batzuten bitartez ikusi ahal izango dute hilargiaren edertasuna, zeren hilargia bera ezin izango baitute ikusi. Gure aurrekoek hilargiaz mintzatzen direnean bizidun gisa erabiltzen dute hitza «ilargiagana» eta honek hilargiaren zentua azaltzen digu, euskaldunen-tzat ilargiak izan duen inportantzia. Gaurregun zoritxarrez ohitura horiek galtzeko arriskuan gaude kanpokoak erraz hartzen ditugun bitartean. Baina gaurko egoeran ilargia eta eguzkia ez dira guretzat kanpoko sinboloak, guk geuk barruan sentitzen baitugu.

Puerto de Santa Mariako presoen gose grebak 30 egin betetzen ditu gaur. Bitartean Donostian presoen

senide eta lagunak Donostiako Santa Maria elizan sartzen dira. Errefuxiatuen egoera ez da batere ona, Yeuseko hiru konfinatu ospitaletiko herrixka batera eramanak izan dira. «Ez digute esan noiz arte egongo garen hemen, baino hobeto gaude, guttienez. Hobetze hay guztioi esker izan da, herriak eta geuk lortutakoa. Ez gaitue Yeun bezain zorrotz «zaintzen» lasaiago gabilta orain» diosku Linazak.



13

«Euskaraz idatzitako salmenta ez da hain txarra izan 1981ean ((DEIA) Euskarazko betsellerrak edo gehien saldu direnak hauek litzateke: Ormazabalen «Pernando Amezketarra» eta, bigarrena, «Zergatik Panpox», Arantza Urretabizkaia idazlearen liburua, azken hau iaz argitaratu ez bazen ere.

Gero «Euskaldunak Everest mendian» letorke, segidan Amurizaren «Oinak», euskara errezean idatzitako liburua eta Joseba Sarrionaindia, gartzela txikian dagoenaren «Izuen Gordeleketan barrena».

Haurrentzako liburu eta komiki liburuen-haurrentzakoak bakarrik, noskialmenta ez da txarra izan, iaz gainera liburu onak ziren haur literatura sailean.

Euskara ikasteko metodoak mantendu edo gorakada ezagutu dute, «Jalgi Hadi» eta «Hitz egin» metodoek batez ere. Baina beste sail batzutan atzera goaz,

helduentzako literatura bera eta kreaio lanak-saiera esaterako-ez dira behar denez landu. Behintzat «Izuen Gordeleketan Barrena» antzeko liburuak irakurtzen badira gauzak ez doaz hain txarto, baina nik neuk behintzat ez dut hau sinesten.

14

Gaurkoa atzokoarekin bateratsu joango litzateke: euskal literaturaren urritasuna. Euskarazko «Iruña» nobela saria hutsik uztea erabaki zuten epai-mahai-koek. Juan Atutxaren lanak «Agure baten azkenengo oroitzak» nobelak aipamen bat lortu zuen, argitaratua izan dadin eskatuz, baina ez du 150.000 pezetatako saria jasoko, forma aldetik eta hizkuntza aldetik hainbat hutsune izatearren. Hau bai dela, gitxi egon eta dagoena...

15

Washingtonen 77 pertsona hilik suertatu ziren atzo arratsaldean abio istripu batetan.

Hemen, Calvo Soteloren Gobernuak JUJEM edo militar burua aldatu egingo du.

Erabaki hau «23 F» delakoa-rekin erlazonaturik legoke, eta bide batez «Ehun militarren agiria»rekin. Gobernuak ordea adina aipatzen du, adin arazoa dela esaten du. Baina guk sinetu ez.

17

«Egunero elurrarekin egiten diat amets» komentatzen digu Martin Zabaleta kirolariak. Everest gailurra igo ondoren ez da posible elurra ahanzte, baina egun guztiak ez dira jai eta egunerokotasunean itotzen gara. Davantek ere literatura droga bat dela esan zigun eta egia da, beharrezko dugu drogaren bat, aurrera jarraitzeko droga bat: mendia, literatura, musika,... Baina egunean egunekoa bizi behar eta...

18

Julio Iglesiasen aita askatua izan da eta ETA politikoa militarra izan omen da bahiketaren egilea. Poliziak



ETAren adar biak inplikatu nahi ditu baina agin batek bakarrik hartu du parte, politikoa militarra.

Telebista, irrati eta egunkari guztiak GEO eta MULARen ekintza laudatzen ari dira eta luzerako izango dugu.

19

«ETA p-m «a bahiketaren jabe egin da, baina ekintza honek ez du suposatzen egintzara pasatzea, taldearen bakealdia apurtzea «dirua lortzea erakundearen beharra da» eta holako helburuaz egin zuten hau.

20

Bihar San Sebastian eguna, gaur gauean jai, danborrada eguna. Eta danborren zaratak bere fruitua ekartzen digu. «Donostia Irratia», sei ordutako irratsaioa jarri du martxan, euskaraz. Sei ordu hauek Donostia Herri Irratiaren sei ordukin 12 ordu bete. Behintzat danak ez dira kalteak, noizean behin berri onak izaten ditugu. Atzo eman zion hasiera Irratsaio berri hori, «Eltzea» deritzan irratsaioari. Gora Donostia.

JOAN LARIZGOITIA



EUSKAL ARRANTZAZ

Euskal Ekonomia tinka larrain dagoela esanda ez dugu bonba berriarik asmatzen, egunero eta geure buruetan jasotzen dugun harri aztuna da eta, hala ere sarritan, burdintza arloak duen neurriagatik eta kalean utzi lezaken langile kopuru izugarria ikusiz, hortxe ipintzen dugu gure atentzio osoa eta krisi beraren pean dauden beste arlo batzu

ahaztu egiten ditugu apur bat. Hau xe da esate baterako Arrantzaren kasua.

Arrantzak, aitortu beharra dago, ez du pisu koantitatibo handiegirik gure ekonomian, 11.000 arrantzale, baina euskaldunon lan-eretan aintzinatik sartua dagoenez gero, garrantzizkoa da gure osotasunean, eta gainera, gure itsas ertzeko hain-

bat herri, —Euskal Herriaren nortasunerako ezinbestekoak diren hainbat herri—, hortik bizi dira erabat eta berarekin batera desagertuko lirakeke agian. Adibide moduan, Pasaia, Ondarroa, Lekeitio, Bermeo, Hondarribia, Getaria, Motriku... ipui genitzake.

Azken aldi honetan arrantzaren krisiari buruzko informazio faltan

gaudenik ezin dugu esan, egunero agertzen bait da zerbait egunkarieratan, irratietan eta baita telebistan ere, baina geure zalantzak ditugu informazio hori nahasiegi ez ote datorren, arloan sartu sartuak daudenek soilik ulertzeko egina. Aproba moduan hiru-lau galdera egingo genituzke gure susmo hau egiaztatu nahian: Zer dira **pesca de cerco, pincho, altura, bajura, arrastre?**, Denak daude krisian?, Zergatik?, Zer dira 200 milla famatu horiek?

Artikulu sail honekin oinarrizko galdera hauei nahi izango genieke erantzun, ahal dugun neurrian, arlokoa ez denaren jakingura betetzeko asmoz, oinarrizko informazio moduan eta nahi bada, halako helburu sasi-didaktiko/sasi-apologista batekin. Hemen agertuko diren datu gehienek ez direla zuzenean geuk hartuak, hasieratik argi utzi gura dugun gauza da; gehienbat erabili ditugun aldizkariak ondoko hauek izanik: Hegoaldeko datuetarako.

INFORMACION eta Caja Laboralen INFORME-80, Iparraldekoetarako JAKIN.

Lanaren mamiarekin bete betean sartu orduko aditzera eman behar dugun zalantza bat dugu: nolako hiztegia erabili. Guk, Bermeo eta inguruko arrantzaleen hizkera baino ez dugu ezagutzen, eta uste dugu, haien artean izaten duten harremanak ikusiz, beste **portuetan** ere han bezala portatuko direla, inongo garbizaletasun konplexurik gabe. Nolanahi ere eta gure berezko garbikeri aurkako senari amore emanaz, hitzen batzu asmatu egin ditugu, lana apur bat txukunago gera dadin, baina faltsupen honen errudun-komplexua kanporatzeko ohartxo bat gura izango genuke egin arrantzaleen benetakako (euskera) hizkera zein den azalduz. Oraintxe bertan, lerro batzu gorago **portu** hitza erabili dugu eta zergatiak azaltzen hitz horregaz hasiko gara. **Portu**-ren ordeztan **kai** entzuten da baina kaia eta portua ez dira gauza bera: kaia muellea (mueller) den bitartean, portu hitzak bai kaiak eta bai heuren barruan dagoen itsaso zatia hartzen ditu osotasunean; gainera **kai** ez da jatorrizko berba euskalduna (ingelesez = quay, frantsesez = quai); orain, gaztelaren kontrako fobiak hustutzeko balio badie batzuei, hor konpon... Berdin gertatzen da **garnata** (carnada) edo **beita** erabiltzerakoan (ingelesez = bait) hemen ere gaztelera/ingelasa aukera dugularik, bata bestea bezain erdaldunak biak. **Itsasontzi** apenas entzuten



Berdela jaten ikasiko bagenu..

den hitza izanik, ezagun zaigun arrantzale giroan hauexek dira gehienetan erabiltzen direnak: **barku**, arrantzarako ez diren untzi handiak (gerrarako-barku, kargarako-barku, ...) eta gure portuetan dauzkagunak izendatzeko **bapore, motor, enbarkazio, untzi** (besteak baino gutxiago). **De bajura, altura, atunerc, bacialadero, congelador** esateko arrantzaleak ez dira txatxetan ibiltzen: **bajurako, alturako, atunerc, makaileru, kongeladore**, eta kitto. Guk aldiz, **itsas-bazterreko, ur-handitako, atuntzale, makailozale** eta **izozkailu** erabiliko ditugu. Honekin ez dugu esan nahi arrantzaleen hiztegia urria denik, inondik inora ere, (haien artean erabiltzen diren hitz

asko eta asko ez daude inongo hiztegitan hartuta), gertatzen dena zera da, oso errez hartzen eta onartzen dituztela kanpoko hitz berriak, kontzeptuak zehatzago mugatzeko balio badute.

Eta nahiko da hiztegiarekin.

PROBLEMAK NONDIK?

Arrantza-moeta bakoitzaren egoera ekonomikoa desberdina da, eta dituzten arazoak ez datoz iturri beretik, baina edozertara ere problemak ibai horrek hiru iturburu nagusi dituela esan genezake: 1.- Erregaiaren (gasolioaren) garestitzea, 2.- Gure uretan harrapatzen diren hainbat arrain-moeten salmentarik eza, 3.- Gure untziak lan



egiten duten uretako nazioen jabe-
goa 200 millatara hedatzea.

1.- Erregaiaren prezio-igoeraren arazoa errez ulertzekoa da denok sufritu eta sufritzen bait ditugu bere eragina orain dela urte batzutatik hona. Ba, arrantzan oraindik eragin gogorragoa du Estatuak gutxi gutxi-ka gastu horren alderako ematen zuen emaitzak eta subentzioak ia kendu egin dituelako, eta kontutan izan behar da hustiapen-gastuetan (explotazio-gastuetan) garrantzi handienekoa dela berau, untxiak

portutik kanpo dauden denbora osoan, gau eta egun, motorra **abante** erabiltzen bait dute.

2.- Arrain-moeta batzuren salmentarik eza, zoritxarrez, gure itsas bazterretan gehien ematen diren moetei dagokie eta jendearen gustu-problema bat besterik ez da. Hau dela eta, gure arrantzaleek ez dute ez sardinarik, ez txitxarrik, ez berdelik, ez makaelik harrapatzen, aurretiaz dakitelako portura dakarten guztia Hirin-Fabrikarako izango dela, abereek elikatzeko, eta ez dietela kiloa 8 pezetatik gora ordainduko. Erosleen gustu-problema hau izugarria da, nazio batetik bestera arras aldatzen delarik, hala, gurean lebatza gorengo mailan dagoen arraina den artean, Europako hainbat herritan orain arte ez zuten harrapatu ere egiten, eta orain, harrapatzen hasi badira Espaiñara exportatzeko da, ez heurek jeteko, eta bestalde, gurean hain gutxietsiak diren berdela eta makaelak oso salmenta ona dute European zehar.

Arrain baztertuon egoera aldatuko balitz, gure itsas bazterreko arrantzaleak, negu osoan untxiak amarratuta eduki beharrean lanean egongo liriateke. Hau honela gerta dadin hasia da kanpaina bat jendearen gustuak aldatzeko, baina ondorioak ikusteko urteak pasa beharko dira, ez bait da erreza ohiturak aldatzea, janari kontutan bereziki.

3.- Hirugarren kontua eta larriena 200 millarena da eta honetan ba dago zer argitu. Arrantzaleei sarritan eta oso ausartki bota dieten salaketa bat azaltzea behar beharrezkoa dela deritzogu, hau da: gure itsas bazterrak arrantza bizikorregia

edo intentsiboegia egiteagatik hustu ondoren beste batzurenak hustuzera doazela orain eta hortik datozela dituzten istilurik gehienak, beraz, heuren lan-eremua zaintzen ez jakitetik. Ez dugu esango gure arrantzaleak itsas bazterren eta arrain-moeten oreka ekologikoa zaintzerakoan eredu bat izan direnik, baina burubako batzu izan direla entzutea ere ezin da onartu, eta hona hemen arrazoiak:


3.1. Gure arrantzaleek lan-eremu oso zabala izan dute historian zehar eta orain lau mende Kanadaino heltzen baziren balearen eta makailoaren (euskaldunak aurkitutako arraina) bila, orain hogeitau urte Senegal-eraino heltzen ziren atunaren atzetik. Beraz, ez dira sekula gure itsas aldeetako uretara mugatu. Munduan ez dago euskalduna bezain herri arrantzalerik —hau inolako harrokeriarik gabe diogu—, eta oraintsu arte, inongo nazioak ez zuen ikusten hor irabazi errezegirik. Orain berriz, eta hurrengoan azalduko dugun moduan, **geure untxiak eta gizonak** heuren ganatzeko aukera ikusiz, ur-eremu handiagoaren jabe izateko gogoia etorri zaie. Hortik dator orain dela 5 urte, 1977.ean, itsasoan jabe goa 6 millatatik 200-etara zabaltzea. Ba da zabaltzea! Ba dakigu jakin ere, ekonomian sentimenduak indarraren kontra ez dutela zer egirik, baina zilegi ezan bekigu galdera egitea: lehorrean hain maiz aldarrikatzen bada eta hain justiziazkoa iruditzen bazaio jende askori **lurra lantzen duenarentzat** esatea, zer esan behar dute euskal arrantzaleek orain dela mila urtetik hona landu duten itsasoetz?

3.2. Inork ezertxo agindu ez aholkatu barik (zeren arrantzari buruz ikerketa edo inbestigaziorik ez bait dago Herri bedeinkatu honetan) arrantzaleek **kupoa** ipini zieten moeta batzuei, desargertu ez daitezten (beste arrazoi batzuren artean) untxi bakoitzak kopuru fijo batetik gora harrapatzea debekatuz. Ea zein arlotan egin den beste horrenbeste.

3.3. Hondoko arrantza egiteko, guk, beste herri askok baino toki gutxiago daukagu arrazoi geologiko bategatik: gure **plataforma kontinental**a oso estua delako, eta orduan, guretzat alperrekoa da jabe goa 200 millatara hedatzea (1 laukia). Gure itsas ertzetik 5-6 millatara 1000 metrotako hondoa dago, 15 millatara 200 metrotakoa, 20-ra 1.000-takoa eta 25-era 2.000-takoa, aldiz, Frantzia, Irlandan, Ingalaterran, eta abarretan,



Untxiak ere triste daudela dirudi.



Gure plataforma kontinentalaren estutasuna argi ikus daiteke marrazki honetan.

kostatik 150 millatara oraindik 200 metrotako hondoa dute. Honek zer esan nahi du? ba, arrain-moeta batzu harrapatzeko (antxo, bisigua, lebatza,...) apenas daukagula eremurik; besteak, jabetgo mugak zabaltean eraintsu arte ur internazionalak izan direnak heurenganatu euskaldunen ohizko arrantza-kalen jabe egin direla.

ARRANTZA-MOETAK

Aipatutako problema orokorrok, eragin desberdina dute arrantza-moeta bakoitzean, dituzten lan-baldintzak ez bait dira berberak. Hori aztertzen hasi baino lehen, sailkake-ta egin beharko dugu, erarik egokiena utzi-moetetan banatzea iruditzen zaigularik, hau da:

- 1.- Ur-handitakoak edo arrasteruak
- 2.- Itsas-bazterrekoak edo bajurakoak
- 3.- Atuntzale izozkailuak
- 4.- Makailozaleak
- 5.- Lebazaleak

Bakoitzaren azterketa hurrengo baterako utziko dugu.

GOTZON GARATE, "AZKUE" NOBELA-ZARIAREN IRABAZLEA

Gotzon Garaterengana hurbildu gara. Jakina denez, IZURRI BERRIA nobelarekin irabazi duen sari literarioari buruzko zenbait galdera egin nahi dizkiogu. Deustuko unibertsitateko bere bulegoan hartu gaitu. Mahai bat, aulki pare bat eta liburu betetako apal batzu. Jezarri eta hizketan hasi gara:

—ZEIN DA, GOTZON, ZURE NOBELAREN GAIA?

—Beno, ba dakizu izenburua «Izurri berria» dela. Droga gogorren munduan sartu nahi izan dut oraingoan. Argumentua zera da: Heroina dela eta neskatxa bat hiltzen da. Istoria, kasua aztertzen ari den detektibe baten gorabeherek osatzen dute. Ikertzen ari den bitartean, neskatxa batekin maitemintzen da, baina droga-saltzaileen buruen erruz, neskatxa hori hil egiten dute. Detektibea, orduan, jo eta droga-saltzaileen burua, Negurin bizi den itsasontziduna bera, hil egiten du. Nobela Carabanchelen amaitzen da. Detektibeak handik kontatzen du istorioa. Uste dut, eta hala esan didate, aurrekoak baino gogorragoa dela.

—KRITIKARIK JASO AL DUZU?

—Oraindik ez, egia esan. Zenbait lagunek akatsen bat seinalatu didate, hori bai, eta arrazoia daukate gainera, baina horrelako kritika seriorik ez didate oraindik egin. Dena dela, lagun batek horrelako kritika bat egiten dizunean kontutan hartzeko izan ohi da, normalean arrazoia daukate eta.

—NOLA IKUSTEN DUZU GAUR EUSKAL NOBELAGINTZA? ETORKIZUNIK IKUSTEN DIOZU?

—Gaizki dago, dudarik gabe. Ez dago euskaraz irakurtzeko giro handirik alde batetik; euskal nobelak, oraingoz ere, «acto patriótico» bezala irakurtzen dira eta ez da hola gertatu behar. Nobela gustura irakurri behar da. Dena dela, gero eta giro hobea sortzen ari da azken bolada honetan. Beste alde batetik, argitaratzea zaila izaten da sarri; izena eginga ez daukanarentzat zaila izaten

da. Nobela bat salduko dela ez bada-kite, ez dizute normalean argitaratzen. Beste problema bat euskara bera da. Hiztegi eza izugarria da. Gizartea erdalduna denez gero, gauzak erdaraz adierazten ohituta gaudete. Lehengo egunean, gozo dena batetako eszena bat irakurri nuen: hogeit bat pastel-izen zekarren. Euskaraz ez daukagu hori oraindik. Ahalegin izugarria egin behar da alde horretatik euskarazko nobela bat idazteko. Gizartea euskaldunduz joan behar dugu, hori lortzen dugunean nobelagintza indartsua edukiko dugu, nobela, izan ere, gizartearen ispilua baita.

Etorkizuna, benetan diot, ona ikusten diot. Orain bertan gauza handirik ez badago ere, ba daukagu idazle onen bat. Bultzatu egin behar izango litzateke nobela idazteko bali dutenen lana (Saizarbitoria, Joxe Austin Arrieta,...). Berez, argitaratzaileek egin beharko lukete hori, baina lehen komentatu duguna: Ez dago dirurik... Honetaz aparte, eta nik beti esaten dut, urte batzu barru, euskal filologiatik nobelista onak irtengo direla uste dut. Hain zuzen, euskara lantzen eta literatura-teknikak ikasten ari dira orain. Hori guztiori finkatzen denean, nobelista onak edukiko ditugu.

—ZEIN DA ZURE USTEZ, NOBELISTA IZATEKO EDO NOBELAK IDAZTEKO KLABEA?

—Zaletasuna eta gaitasuna. Hau da, oinarrizko ezaugarri batzu eduki behar dira, baina oinarrizkoak dira; gehiena ez da jaiotzea, ez da dena hor bukatzen, garrantzitsuena saiatzea eta lan egitea da. Egunero hamar lerro idatziz asko ikas daiteke... Erdarazko nobeletatik hartutako zati onak euskaratuz... ez dakit, modu asko daude. Gero, gaur egun, teknika batzu daude, eta horiek ere ikas daitezke. Izugarria izan da, adibidez, zineak izan duen eragina, kamaren teknikak...

—NOLAKO IDAZLEAK DAUKAGU GAUR EGUN EUSKAL HERRIAN?

—Lehenago esan dudana: idaz-



leak ba dira, baina zaila da gaur egun nobelak idaztea, ez dago dirurik eta ez girorik ere. Dena dela, eta euskal nobelagintzari kritika bat egin behar bazaio, mami gutxi dagoela esango nuke. Teknika ona daukagu, aberatsa, baina nobeletan ez dago mamirik. Pertsonaiak ere sakondu egin beharko dira; ez dago holako pertsonaia aberatsik, holako barne-burrukarik... Teknika ona, azken batetan, baina teknika hutsa sarri.

—BA DAUKAZU BESTE NOBELAREN BAT ATERATZEKO ASMORIK?

—Bai, orain dela sei-zazpi urtetik, polizia nobela ez den bat idazteko asmoa daukat, baina ez dakit noiz aterako dudana. Patxadaz ibili behar da. Lehen esan ditzut: gogorra da, irabazpen ekonomikorik ez dagoenean, lan-orduetatik kanpo, oporretan eta abar idaztea, eta zoritxarrez, euskal nobelak ez du gauza handirik ematen. Patxadaz ibili behar da, horregatik, nobela hizkuntza baten garapenerako guztiz garrantzitsuena da, poesia baino garrantzitsuagoa, nire ustez, eta euskarak nobelak behar ditu. Nik uste dut euskal filologiak, urte batzu barru, nobelista onak emango dituela.

—MILA ESKER, BERAZ, ETA ZORIONAK, GOTZON.

BITTOR URAGA

IAZKO KAZETA ZENBAIT

Besteren artean, iaz, euskaltegi-tako ikasgelak, ilun eta hezeak omen eta militantzia giroa bide zeriela, A.E.K. eta Euskal Gobernuaren elkarren ileei tiraka ditugu ikusiak. Gipuzkoako Diputazioak, (hartan parte hartzen dutenoi esker, noski!), 110 milioi izendatu du Hizkuntz Kontseiluaren plangintzarako (ikas-taroak, euskara administrazioan sartzea, UEU, UZEI, Elhuyar, Euskerazaintza, hainbat kazeta «Argia» eta «Goiz-Argi» barnean).

HALAZ ERE...

«EGIN» eta «DEIA»-ren euskarazko proportzioak gutxituz doaz biziki. Beste eguneroko prentsan ez dugu aldaketa haundirik ikusi: «HOJA DEL LUNES»-etan Donostiakoak soilik dakar euskarazko artikulluxka bat. Besteak? «Diario de Navarra»k, astean birritan-edo, ortografia ez-batuan egindako gauzatxoak.

Astekarietan garbiago ikusi ahal dugu, garbiago bada, bat gutxiago existitzen delakotz («ERE», hain zuzen). Euskararen proportzioaren aldetik kidekoa zuen «Punto y Hora»k, debekuen artean bizi denak, bestetik, ez du goititu bere euskarazko alderik. Baionako «Herria» ozta-ozta bizi da.


Iazko kazetaz (Euskal Herrian, euskal kazetaz-edo...) ari garela bada beste gauza aipagarri: katoliko bizkaierazale zenbaiten kanpaina (apezak nagusiki) ortografia ez-batuzko euskara azkartzen (kazetak eta ikastaroak direla bide, bizkaieraren izenean subentzioak jasotzen, kasu batez, Bilboko Udalak, gazte-riarentzako iazko presupostua Batzokietako euskarazko klaseetarako eman duenean). Bizkai eraren aldeko azken agirian, besteren artean, hauek ditugu bultzagile: Ander Manteola (Derioko udako ikastaroen burua, «Labairu» ikastetxea...), Lino Akesolo (Euskerazaintza), J. Andoni Retolaza (haurrentzako «Kili-Kili» Kanpaina), Martin Olazar («Zer» aldizkariaren zuzendaria), Iñaki Zubiri («Euskerazaleak»), Xabier Uriarte (Hizkuntz Eskolako Euskara Sailburua), Fermin Iraolagoitia (Ikastola Katolikoen Elkarteburua), Joseba

Atxa (apezpikutzako Eskolen Arduraduna).

Bainan Elizaren joera (edo/ta bere zati baten joera) euskaltzale ez diren alderdiana (c'est à dire, alderdi guztiena) baino guztiz interesgarriagoa bada ere: hauen kazetetan zail ikusiko dugu euskarazko artikulurik, edo euskaraz badira, arrunt zaila orijinalak izatea, eta orijinalak balira, zailago oraindik, euskarari buruz ez izatea. Halaz ere, ez da hori

Oh! euskadi

N. alera
Apirila 1. 1981
75 orria.



artikulu honen alorra. Hemen, iaz argitara ziren euskarazko kazetak ikusiko ditugu eta hauen artean bi eratakoak soilik: euskalduntze-mailakoak eta literarioak.

EUSKALDUNTZE-ALDIZKARIAK

Euskal Gobernuak sail berezi baten bidez (Luis Alberto Aranberri kargudun eta Jose Juan Txabarri fraileohia kontseilari) euskaltegi «piloto»ak muntatu dituzte, HABE (Helduen Alfabetatze Berreuskalduntze Erakundea)-delako egitura bultzatuz. Azken abenduan izen bereko kazeta plazaratu dute, «O» zenbakian, hainbat artikulu, euskara lau mailatan, Israelgo ULPAM esperientziez, Xalbador-en bertsoren bat eta Garaikoetxearekiko entrebista dakarrela.

Erran egitura horren azkartzeaz batera, euskararekiko diru laguntzen arauzkatzeta eta, ondorioz, AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea)-aren zokortzeaz suertatu da. Hauen eskabideak: AEK Euskal Herri osorako erakunde publiko bihurtzea, euskal gobernuko kontrolaren ordez («kontrol demokratiko-legalaren ordez») Koordinakundearen kontrola. Erran ardatzok, «ideologia zabalean oinarritutako hizkuntz-kultura aurkeztuz eta ez burgesiak kontrolatutako ideologia hertsian». Kondizioak jasangaitzak gertatu bide zaizkio Euskal Gobernuari. Horrexegatik sortu diren zernahi erranak eta tirabirak. Euskal Gobernuaren ustetan, subentzioen sosa, herri-diru horren kontrol publikoa, herriak hautatu alderdien bidez, eta gobernuaren bidez, beraz, egiten delakotz.

1981.eko abenduan ere, beste «oinarrizko euskarazko aldizkari» bat «AIZU» izenekoa (eta «HABE» ez bezala, kioskotan salgai) argitara da Bilbon. Euskarazko hiru maila, sail aunitzez (hamazazpi) osatu kazeta mardula. Sailen artean, Herri Hizkera, Elkarrizketa —Jose Urien artzaina oraingo honetan—, Amorearen Baratza (kasu! Landarejaleak dirata), Eritziak, Gramatika, Denboramatekoak eta artikuluxka bakoitzaren azpian erabilitako zenbait hitzen errangura.

LITERATUR ALDIZKARIAK

«El País» eta «Diario 16» antzean bainan gaizkiago, Bilboko «La Gaceta del Norte» eta «El Correo Español - El pueblo vasco» egunkariak iaz hadi dira literatur gehigarriak egiten, noizbehinkako gehigarri horietan euskarazko artikuluxkaren bat («La Gaceta»n) ageri dela (Berrondo, A. Zubikarai, J. Kortazar). «Muga» hilabetekarian ere euskarazko literatur saila (A. Lertxundi eta I. Sarasola arduradun) sortu dute. Existitzen zirenetarik, aldiz, «KANTIL», Donostian publikatzen zena (lehenengo «KURPIL»eko ekipo beraz osatua), itzali da iazko martxoan, haren hamazazpigarren zenbakian. Kazeta honetan euskaraz argitara dutenen artean Joxanton Hartzeta, Juan San Martin, Gotzon Garate eta Josu Landaren izenez orritzen gara.

Iaz sortutakoak ditugu «HEGALEZ HEGAL» eta «IDATZ MINTZ». Lehenak, tirada gutxiko (300 ale, omen) eta artoski egina, bereak egin bide ditu jaior urtean. Leopoldo Zugaza argitaratzaile eta Jose Juliak Bakedano, Maya Agiriano eta Joseba

Atxaga «Aholku Kontseilu»an, lehen zerbakian Kosme Barañanoren aintzin-solas batez, «Arte Vasco» zelako kazetaren birpublikazio ederra agertzen da. Bigarren sailean Txillidari buruzko lanak eta Literatur sailean, B. Atxagak esku, M. Sanchez-Ostiz, P. Antoñana eta Iturraldearen poema eta ipuinak ditugu. Pablo Antoñanak «Patrañas Varias»-delako ipuina, Miguel Sanchez-Ostizek «Reinos Imaginarios»eko hainbat poema eta Joxemari Iturralde (POTT bandakoa eta aurtengo Bilboko Udaleko ipuin sariaren irabazle) ipuin bat «Nik ez dut oroitzu bizi nahi».

«IDATZ MINTZ» bihilabetekaria «Labairu ikastetxe»ak argitaratu du, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz, azken abenduaren akabantzan. Bizkaieraz batikbat, ortografia batuan gehiena, Adolfo Arejita, Jon Kortazar eta Jesus Etxezaharragaren arduraz («Hegalez Hegal»eko Maya Agiriano partaide), Mikel Zarateren artikuluxka batek hasiera ematen dio aldizkariari. Honetaz landa, Derioko Seminariotik pasatako izenek-eta besteren bat: J.A. Zubikarainen kritika musikalak, M. Agirianoren Arte Erakusketen kritika, osatzen dute poliko maketaturiko lehen ale hau.

Urte bat baino gehiago irauten ari direnen artean (beharbada urtekarriak bilakatu direlako) «SUSA» eta «XAGUXARRA» daukagu, eta gorki literarioa ez izanik ere «OH EUZKADI». Badira beste kazetak ere, jakina! Bainan ez literaturzaleontzat, hala nola «Kultura», elebiduna eta gai askotarikoa, «Jakin» gai monografikoez espezializatua, «Saski»



Naski» erdal subkulturaren hedatzailea gipuzkeraz zein bizkaieraz. Hemen aipu egin hiru lehenez besterik ez gara arituko.

Donostiako «SUSA»n, EUTG-ko literaturzale zenbaitek segida eman diote duela bizpahiru urte hasitako lanari. Iazko maiatzean publikatu duten alean, hirugarrena eta hobereena, ausaz, itzulpenak, entrebista luzea (Agustin Arrietarekin), literatur kritikak eta sortze lanak agertzen dira. Egileak ezagunak ditugu: Josu Landa (Donostiako Hiri Ipuin Lehiaketan azken irabazlea), Mikel Anza, Mikel Hernandez Abaitua, («Oh Euzkadi»n partaidea ere), Uria, Pablo Sastre...

Bigarren «XAGUXARRA»n argitaraturiko lanak itzulpenak ditugu funtsean, gorago aipaturiko batzuk (Uria, kasu batez) eta Txomin Peillen lan originalak argitara badituzte ere. Ohargarria, bada, Joxe Azurmendiren eskutik doazen Miranderen artikuluxkak, ezezagunak hein haundi batetan.

Donostian ere, Koldo Izagirre, Goizon Egia, Ramon Etxezaharreta, R. Saizarbitoria... «Oh Euzkadi», periodikoki atereaz (ez da gutxi), iraun dute, eta hartan kritika artikuluxkak, apezekiko entrebistak (arras interesgarriak), itzulpenen bat. Eztabaidak ere ez dira faltan izan, (Amatiñorekikoa, kasu batez) eta hasierako zenbakietan bezala euskararen «inguru larria» ardatz eta Donostialdeko euskaltzale, euskal-herrianeuskarazko-euskara-irakasle eta halakoen kezkez eta girotan blai barnatuegiak, agian.

JOSE MARIA LARREA



ANAITASUNA

Erredakzio Kontseilua

I. Antiguedad
J. I. Basterretxea
J. R. Bilbao
J. R. Egiluz
J. R. Etxebarria
J. M. Pastor
I. Saez

Idazle eta Lankideak

Esteban Agirre, Paulo Agirrebaltzategi, Iñaki Alvarez, J. L. Davant, Harotza, Miren Izagirre, Julen Kalzada, Karmelo Landa, Jesus Maria Larea, Xabier Portugal, Karlos Santiesteban, Bititor Uraga, Xabier Zorroztza.

ANAITASUNA

Zabalbide 68
Posta-Kutxa 495
Bilbo-6. Tfnoa.: (94)
411 66 20

Abonamendu Txartela

Izena

Lanbidea

Adina

Tfnoa:

Helbidea

Probintzia

Herria

Aurrezki kutxa
edo Bankua

Sukurtsala

Kontu edo libretaren
zenbakia

euskara errazean

AIZU!

Gure Euskal Herri honetan mila-ka lagun euskara ikasten ari dela denok dakigun gauza da, eta beraz guztiok kontutan hartu behar dugu ikasleko horrek, ikastearen prozesua errazteko, oinarrizko euskaraz eginiko komunikabideak behar dituela. Ba daukagu jadanik zenbait liburuxka, baina hortik aparte, ezer gutxi. Aspaldi honetan bi euskara errazeko aldizkari plazaratu zaizkigu: HABE, Eusko Gobernuaren babesean, eta AIZU!

Azken honetakoekin egon gara luzaro mintzatzen, eta esan digutenaren arauera, haien proposamena «Oinarrizko euskara plazara» izango litzatekeen arren, garbi utzi nahi dute, «oinarrizko euskara» delakoa ez dela Euskara bera, euskara mugatua baizik, euskara murriztua; eta beraz, euskara menperatu gura dutenentzat, urrats bat baino ez, gainditu behar den urratsa alegia. Eta holaxe adierazten dute O. zenbakia-aren editorialean.

ANAITASUNA- Nortzuk egiten duzue AIZU!?

«Euskal Filologian gabiltzan 10 pertsonak egiten dugu, erredakzio-taldea osatzen dugu. Bestaldetik, maketapena eta holako gauzak egiteko, Arte Ederretako 5 lagunekin kontaktzen dugu».

—AEKrekin zerikusirik duzue?

«AEK eta AIZU! aldizkaria gauza desberdinak dira, ezta? Hala eta guztiz, hasiera batetan holako erakunde baten laguntzarik gabe aldizkari bat ateratzea oso zaila izango zela pentsatu genuen. AEKra jo genuen, beraz, beraien zabalkundeak egiteko. Hortan datza elkarren arteko harreman bakarra».

—Zer dela eta bururatu zaizue AIZU! ateratzea?

«Arrazoi asko daude. Alde batetik, erredakzio-taldean gabiltzanok, beti ibili izan gara euskarazko klaseak ematen eta hola. Orduan, nola-baiteko aspertasuna zegoen gure artean, eta AIZU! guretzat beste gauza berri bat izan da, inoiz egin ez dugun gauza bat... eta intersgarria, noski!

Baina ez da bakarrik jolasbide bat. Euskarazko kalseen munduan hutsune nahiko handia zegoela ikusten genuen, ez? Euskara ikasten duen batek irakurtzeko orduan ez dauka materialerik, edo gutxienez ez behar beste. Orduan, alde batetik guretzat gauza interesgarria da AIZU! egitea, eta bestetik zerbitzu bat ere euskal komunitate osoarentzat».

—Baina AEKk berak beste antzeko bat kaleratzen zuen...

«Bai, «Ikasleen Kazeta» deitzen zen. Baina aldizkari nahiko txarra zen, eta gainera ez zeukan batera maiztasun zehatzik, periodizitate finkorik. Orduan, ez zen alde horretatik aldizkari bat, ez? Aldizkari izenak berak esaten duenez, aldian-aldian ateratzen den gauza bat da eta. Edukiaren aldetik nahiko astuna zen irakurtzeko, eta ez zuen interes

haundirik. Horrexegatik pentsatu genuen gauza askoz hobea egin zitekela eta AIZU! atera dugu. AEKkoek beraiek ito egin zuten proiektu hura, baitzioten etorkizun haundirik ikusten. Orain, dena dela, HABE daukagu Eusko Gobernuak egina».

—Aipagarria gerta daiteke kointzidentzia hau. HABEri kontrajartzeko atera al duzue AIZU!?

«Guri AIZU! aldizkari ateratzea bururatu zitzaigunean, guk ez genekien ezer. Merkatuan lehenak ginela pentsatzen genuen. Eta gero, aldizkari osoa montatuta zegoenean, taldea gutiz osoturik zegoenean, orduan enteratu ginen Eusko Gobernuak beste bat aterako zulea. Hala eta guztiz ere, guk hasiera hartan HABE eta AIZU! aldizkari desberdinak izango zirela pentsatzen genuen. Gure aldizkaria euskeraz ikasten ari zen jendearentzako gauza bat zela ikusten genuen, eta HABE, egunkarietan agertzen zen bezala gutxienez, aldizkari pedagogiko bat; eta pedagogiko hitzak, gure eritziz, batez ere irakasleei zuzendutako gauza bat esan nahi zuen, ez?, hau da, euskarazko klaseak ematen dituztenei zuzendua. Gurea ez peda-



gogikoa, didaktikoa baizik ikusten genuen. Baina, beno, ja HABEren lehenengo alea ikusi dugunean, gauza bera direla konturatu gara, nahiz eta projektu desberdinak izan.

Gure nahia ez da, dena dela, HABEri kontrajartzea; gure nahia AIZU! aldizkari ateratzea da, besterik gabe. Hala eta gutiz, kriston problema da beste aldizkari bat egotea: kompetentzia egingo diogu elkarri, eta merkatua oso mugatua da. Nolanahi ere, biontzako lekua dagoela uste dugu, zeren HABE batez ere beren euskaltegietan erabiliko baitute, eta guk AIZU! AEK koetan eta gueskoletan».

—Subentziorik izango al duzue?

«Eskatzeko asmoa daukagu, bai, baina ez itxaropen haundirik, beste antzeko aldizkari gubernamental bat egotea...»

—Esaidazu orain zelakoa izango den, edo den, AIZU! barnetik.

«Hiru hizkuntza maila daude: hasierakoa, bitartekoa eta oinarrikoa. Mailak egiteko orduan, AEKk 8. «Urraspide» an atera zituen arauak jarraitu ditugu. Hiztegi aldetik ba zegoen eginda hasierako mailako liburu bat: Imanol Berriatuaren «Mailaka idazteko Gida-liburua». Gero geuk ere lan egin dugu honetaz Deustuko Unibertsitatean.

arrazoirik, zeren gauza guztiz desberdinak dira eta. Adibidez «The International English Journal», ingles errazean dagoena, ez zaio inolaz ere kaltegarri izaten «Times»i. Hala ere, gure hizkuntzaren egoera hain berezia ikusita, ba dirudi agian baietz, gerta litekeela hori».

Hola ez dadila.

I. A.

aiZU!

—Eta kioskoetan ez duzue salduko?

«Hasierako asmoa baiezkkoa da, baina nola saltzen den ikusi ondoren birplanteatuko dugu».

—Profesional mailan egiten duzue AIZU!?

«Hizkuntza aldetik Filologiakoak garenez, plastika aldetik Arte Eder-ratakoak garenez... baietz, esan liteke, profesional mailan egiten dugula. Baina itaundu nahi duzuna ea hortik biziko garen bada, orduan ezetz borobila eman behar dizugu. AIZU! egiten dugunon arteko inork, ez du pezetarik jasotzen. Entzuna dugu, modu berean, HABEn idazten dutenek ere ez dutela ezer kobratzen.

Esan behar da gainera, argitaratu dugun O. Zenbakia ordaintzeko, ez dugula diru nahikorik aterako, nahiz eta ale guztiak saldu, jarri dion 50 pezetatako prezioarekin. Hau aurkezpena egiteko izan da bakarrik. 1. zenbakitik aurrera 100 pezeta balioko du».

Gaien aldetik, ba, mota guztietakoak atera nahi genituzke. Ez da izango «aktualitatezko» aldizkari bat noski, «egunean egunekoa» zentzuan, baina bai gaurkotasunekoa zentzu zabalagoan. Hau da, gauza biziak argitaratu nahi ditugu. Edo-nork parte har dezake. Hemendik kolaboratu nahi lukeen jende guztiari dei bat egiteko probetxatu egingo dugu, haien lanak eta bidal diezazkiguten.

Formatuaren aldetik aldizkari normalak baino handiagoxea da., Batez ere hiru zutabe beharrezkoak genituelako. Bi zutabe lodi, textua (artikulua) idazteko, eta hestuago bat azalpenal ipintzeko.

Hilabetekaria izango da eta urte osorako harpidetza 1.000 pezetatkoa da Hego Euskadirako eta 1.500ekoa Iparralderako»,

—Azkenez galdera gaitz bat: ez al zaio kaltegarria izango larrialdian dagoen euskal prentsari?


«Ez dakigu. Izan lekiok. Baina ez dago hala gertatzeko funtsezko

OHARRA: Norbaitek harpidedun izan nahi badu, idatz dezala honako helbide honetara: AIZU! Comandante Velarde Kalea, 2. Bilbo-5.

Omodiozko poesia egiten hasi nintzen. Iaz sariketa honetara aurkeztu nuena adibidez. Aurtengoa, sariaren irabazlea, zabalagoa da, amodioa ere hor sartzen delarik, baina batez ere ene problema pertsonala da horren gaia: denboraren aurkako burruka. Irakaslea eta militantea izanez luzaz gazte egon naiz eta orain bat-batean ohartzen naiz ez naizela gaztea, bizia joaiten ari zaidala, biziaren hegia gaingitu dudala eta beraz, aldapa beheran ari naizela. Beti lan eta lan, gero eta gehiago eta bizitzeko denborarik ez. Hori niretzat izigarritzko kezka da. Nola bizi?, horatarako ba dago bide bat baino gehiago; batzuk lanez mozkortzen dira, jakin gabe zertarako, eta beste batzuek atseginetan baina arruntki, ezer dastatu gabe, hori ere mozkortze bat da, itotze bat. Denboraren aurka positibokiago joka daiteke, eternitatea bilatuz, gure haurretan eta haurrekin gehiago biziz, maite den emaztearekin berdin, burruka eginez Herriaren alde eta abar: ondorio bat utziz eta oraiko momentua ere hobeki biziz.

ZUBEROAKO EUSKALTZAINA

Konklusio honetara heldu den Jean Louis (edo Jon Luis, berak inoiz idazten duen moduan) Davant ez da atzokoa. Bizitza trinkoa eta bilakaera luzea izan ditu orain 47 urte Urrüstoi-Larrabilen familia baserritar batean sortu zen Zuberotar honek. Hogeita bi urtekin Nekazal Ingeniari egin zen eta hurrengo urtean Algeriako gerrara joan behar izan zuen soldadutza egitera eta



J. L. DAVANT APRENDIZA

Ez da erreza gizon hau nolakoa den esatea. Aurretiaz bere bizitzako datu batzu jakin ez banitu, hain apal eta leun berba egiten entzunez apai-za zela esango nukeen, frantzizkotarra edo. Batetik, bere hizkera zuberotarraren doinu kantaria, bestetik, bere izaera ezitsua ikusiz, ez du inola ere lider politiko baten itxurarik, guk ezagutzen ditugun liderren itxurarik behintzat, baina ikusiko dugunez Iparraldeko mugimendu abertzalearen historia idazterakoan, ezinbestekoa da bere izena.

Baina politiko izatetik aparte idazlea ere ba da, poeta gainera (nahiz ere berak oraindik aprendiz dela esan) eta abenduaren 14ean «VII Azkue Poesi Sariketa» irabazi zuenez, Bilbon egon zen Santo Tomas egunean sari hori hartzera etorrita. Aukera hori aprobetxatuz egindako elkarrizketa da hau.



IRATZABAL: AINA POETA

han eman zituen bere bizitzako 27 hilabete. Geroztik oso ezaguna da Euskal Kulturaren munduan bai idazle eta bai politiko moduan. Idazle emankorra da eta ia euskal aldizkari guztietan hartu du parte: GAZTE, HERRIA, ENBATA, EUSKALDUNAK, ZABAL, ZEHATZ, JAKIN, BRANKA, ZERUKO ARGIA, ANAITASUNA, EGIA, etab. Batxilleratoa Maulen egin nuen eta han hasi nintzen euskara lantzen, Xarriton-ek astean ordu bete ematen bait zigun. Gero nihauk gustoa ba nuen hortan eta Hegoaldean liburuak erosten eta hasi nintzen, Txillardegiren «Leturiaren egunkari ezkutua», loidiren «Amabost egun Urgainen», Jon Etxaide-ren «Alos torrea» etab. Gero, 57an, idazten hasi nintzen GAZTE izeneko hilabetekari batean, Xarriton kapellaua zelarik. 61ean ENBATA sortu zen eta han sartu nintzen, eta hor euskaraz idatzi den gehiena nihauk idatzi dut, ez zen askorik egiten baina... HERRIA-an ere asko idatzi dut eta 65ean Euskaltzain laguntzaile izendatu ninduten; 75ean, Zuberoako Euskatzaina, Eppherre, hil zen eta mementu hartan beste zuberotarrik ez zuten eta Euskaltzain oso sartu ninduten. Zergatik?, ba, zuberotar izateagatik eta beste aldetik Iparraldean gehienik idatzi dutenetarik naizelako, zaharrak ez direnetan nahi baduzu. Erabili ditudan gaiak politika, ekonomia, nekazaritza eta sozial arazoa izan dira, historia ere bai.


Puntu honetara helduz, derrigorezko galdera bat zegoen, nola pa-

satu zinen literaturara? Ikusten nuen nola bi-hizkuntzetako kazetek euskara guti sartzen zutela eta materialki ere tinko-tinko zoko batean, eta horrek ezin ziola nehoi euskaraz irakurtzeko gustorik eman. Orduan bertsoan idazten hasi nintzen, baina poesiarako anbizionerik gabe, ideien hedatzeko bakarrik. Hala, kazetak, nahi ala ez, zuri batzuek utzi behar zituen eta irakurtzea materialki errezago gertatzen zen, eta bestalde, bertsoek ba dute halako mnemoteknia bat. Aurkezpen hutsagatik hasi nintzen bertsoan. Hola arituz bi urtez, aspertu egin nintzen bertso politiko hutsen egiteaz eta poesiara sartzeko gogoia etorri zitzaidan. Hortan, Etxahun Iruri hil zelarik hasi nintzen, orain duela bi urte.

ENETZAT POESIA DROGA BAT DA

Oso berria naiz poesian eta ez dut pretentsionerik eduki behar. Aprendiza naiz, ikasten ari naiz, eta aurrera ere ikasteko gogoia dut; ene burua mementuan ez dut nehon kokatzen, bilakaera batean nabil.

Poesia gure oroitzenaren egiten dugu parte handi batean ez da kigularik ere, eta batez ere haur denborakoetan bilatzen dugu. Gero, gure irakurketetan ere. Enetzat gaurregun poesia, biziaren hobeki jasaitzeko eta edertzeko droga bat da, eta ber denboran doping bat, denboraren edo asperduraren garraitzeko. Beraz, droga eta doping-a, bietarik, eta orain ezin pasa naiz hura gabe.



Denbora guti dut idazteko eta ahal dudanean egiten dut. Orain mementuan inspirazioa dudalarik idazten dut, baina hori ez da nahiko, poesian lan asko egin behar da eta norbere burua bortxatu. laz inspiraziorik gabe ere egin nune, zeren sail bat hartu bait nuen eta sail horren barnean ene burua bortxatzen bait nuen. Hola errezago da. Aurten mementuan ez dut oraindik sailik aurkitu, beraz, noizbehinka dut idazten eta ez dut uste hori denik egokiena.

Maiteen ditudan poetak esan duzu? frantsesetan Ronsard zaharretan, asko maite dut berpizkunde denborako poeta hau, gero berriagoetan Mallarmé, Verlaine, Valéry, asko maite dut Aragon, behar bada maiteena frantses poetetan. Españoletan Góngora, berriak ez ditut aski ezagutzen baina ba dut gogoia. Euskaldunetan zaharrak Etxepare, Oihenart, berriagoetan Lauaxeta: asko maite dut, nahiz zaila gertatzen zaidan, alde batetik bizkaieraz idazten duelako eta bestalde garbizalea delako; hala ere Lizardi baino maiteago dut. Gero, Aresti, bistan da. Bizi direnak ez ditut aipatuko baina horietan ere ba dira asko maite ditudanak. Mirande ere bai, gehienbat bat formaren aldetik, estetikaren aldetik; gaia eta funtsa gutia-

go. Idazle bezala maisua da, dudarik gabe, bai poesian eta bai prosan, eta bere bizi-denboran ez zen aski estimatu, zoritxarrez. Orain, nik uste, gorazarre edo omenaldia egin behar geniokeela Zuberoan.



Bi liburu ditut argitaratuta eta lau agertzeko, eta horietarik biga agian agertuko direnak. Agertuak, «Aberria eta klase burruka Euskal Herrian», eta «Makila Gorria», hau bertotan. Agertzeko egon zen «Nekazari Euskalduna» izeneko bat, ekonomia eta sozialkondeaz, 70ean idatzitakoa, baina Hegoaldean irten behar zuen eta zentsurak debekatu egin zuen. Bestalde, ikastoletako haurrentzat bat ba dut prestik, frantsez editorial batean, «Otsanda, euskaldun txikia», bi hizkuntzetan, eta oraindik ez da irten. Ba dago baita ere iaz sariketa honetara presentatuen poema saila «Itsasoak iraultzan». Horiak hirurak agertzeko dira, eta aur-engo irabazlea, «Denboraren aroak», dirudienez agertuko dena.

Eradaraz, «Histoire du Peuple Basque», gero, han zegoen neska aterbetu batek itzulia eta Hegoaldean 80an agertua «Historia del Pueblo Vasco» bezala. Hori militante lana da, ez naiz historiadorea. Nehork ez zuen egiten historiaz ezer,

IZKUTUAN PASATZEN DA GURE DRAMA

«Historia del Pueblo Vasco» deritzon liburuaren hitzaurrean zera dio: «Nosotros somos los Indios de la Europa capitalista, de los Estados-naciones centralizadores. Y quizás seamos también la vanguardia de una Europa de los pueblos...» eta hori azaltzeko eskatu nion, eta gu indioak gara europatiar zaharrak garelakotz eta ber denboran, etsitu nahi ez duten herri bakarretarik gara European. Ba dira Irlandarrak eta gaur Polonia, eta beste zenbat?, guti mementu honetan. Guk burruka bederen ba dugu, besteek ez dakit zer duten: ase eta ase, hori ote da bizian ideal bakarra. Euskaldunek ideal bat ba dugu, euskaldun askok behintzat, eta irlandarrek ere bai. Hori ekartzen diegu Europako beste herriei. Gero honek zer frutu ekarriko duen ez dakit, artean bizitzea behintzat ekartzen digu, ez gara txerri gizenak bezala bizi, gizonak bezala baizik, zutik, burruka ere bizitza delako.



izugarria izan dute, odol eta guzti: 34.000.000 biztanletik 5.000 detenitu dute; Euskal Herrian, demokrazian, inongo diktadurarik gabe eta Otsailaren 23ko golpeak porrot egin zuelarik: 3.000.000 biztanletik 740 detenitu dute 1981an. Atera itzazue kontuak ea, eta ikusiko duzue.

BATUA ATERBETUEI ESKER

Zuberotarra izanez, lehenik, Lapurtarra eta Baxenafartarra ikasi ditut, eta honek Batuarekiko gauza erreztu egin dit. Emekiemeki heldu naiz, praktikan. Euskalkia ala batua?, biak behar dira. Zuberoan, adibidez, uste dut lehenik jendeak mintzatzeko duena irakatsi behar dela eta gero mailaka batuara iritxi.

Iparraldean batasunerantz joateko bidea, neurri handi batean, aterbetuei esker eginga da. Alde batetik, 63tik aurrera hara heltzen hasi zirenean, harreman pertsonalen bitartez haiek hango euskalkiak ikasten hasi ziren eta gu berriz hegoaldeko euskalkietarik hartzen. Bestalde, urte oso batez, aste oro egin genuen lan aterbetu batzuek eta Iparraldeko batzuek, aterbetuetan Txillardegik bereziki. Hori guztia 64ko abuztuan bukatu zen Baionako biltzarrearekin. Hor eman ziren batuari buruzko lehen pausuak eta proposamenak, gero Euskaltzaindiak onartu zituenak.

Goizegi da historia orain idazteko, baina aterbetuek asko ekarri digute Iparraldera. Memento batzue-



IDAZLE MILITANTEA

deus ez dakitenean eskuetan emaitako, eta duela 13 urte edo hasi nuen. ENBATA-k egiten zituen biltzarretan beti agertzen zen erdi-jakintsuren bat edo frantsimanan bat erraitzeko: euskaldunak ez zarete herri bat, ez zarete populu bat, ezen historiarik ez duzue, eta nik baietz frogatu nahi nuen, geure historia genuela.

Azken urte hauek arte idatzitako guztiak militante-lanak izan dira.

Zoritxarrez, Polonia-ren antz haundia du Euskal Herriak eta nehork ez du aipatzen. Izkutuan pasatzen da Euskal Herriaren drama. Poloniarrek suerte hori behintzat ba dute, agian luzaz, mundu guztia haiei begira dagoela eta guri begira nehor ere ez dago. **Honetan ez zaio bat ere arrazoirik faltatzen. Polonian, diktadura komunista gordin baten pean daude, eta golpe militar**



tan ez dira aski diskretoak izan, hori seguru da, gehiegi sartu dira hango auzietan gu haurrak izan bagina bezala, baina orokorki esperientzia oso positiboa izan da guretzat.

Oso gaizki daude orain. Miterrand Giscard bezala jokatzeko da, eta une hortan bere hitza jan du, ez dakigularik noiz arte izanen den hori. Oso gaizki ari da portatzen aterbetuekin.

ZUBEROA

Bai Miterrand-ek eta bai diputatu sozialistek bi urteko epean eratu-ko omen dutela Euskal Departamentua, hori hitz eman digute, ikusiko da. Gaur ba dabil zurru-murru bat, ea ez ote duten Zuberoa bazterrean utziko eta hori litzateke enetzat txarrera: nahiago nuke gaurko egoera, ezin ez eta Euskal Departamentu bat Zuberoa gabe. Hori azkena litzateke, Nafarroaren bazterte bezala. Zuberoako sozialisten buruak ez daude Euskal Departamentuarentzat bero eta nik uste azpitik aurka diren.

Zuberoako egoera politikoa oso latza da. Txomin Peillen-ek esan zizun bezala, adin bateko jendean ezkertiarrek ez dira abertzaleak nahiz euskaraz hitz egiten duten; baina gaztea arruntzean abertzalea da, aski euskalduna izanen denentz, hrori beste gauza bat da. Adin batekoetan biak bereizten dira, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna, baina gazteetan ez.

Kultura mailean, ba dago Txomin Peillen, baina zoritxarrez Parisen

bizi da, han bait du ogibidea. Esperantza ba du, bai guk ere, Herrira hurbilduko dutela irakasle bezala, Pau-eko unibertsitatera; Junes Casenave, asko idazten duena bereziki pastoraletan; Roger Idiart-ek ere lan asko egiten du; beste apezik ere ba dago isilka lan egiten duenik, Eppherre, Altzaiko erretora ere. Gero taldeak daude, BEDAROA, UHAITZA gazteak eta SU-HAZIA, adin bateko Zuberoako euskaltzaleak biltzen dituenak.

Ikastolak diru aldetik gaizki eta nekez ari dira Iparralde osoan. Jende aldetik uste zen aterbetu gehienak Hegoaldera itzuliko zirenean ikastola erori egingo zela edo behintzat biziki apal geldituko, baina ez, iraun du eta haur gehiegi ez baldin bada ere, aurrera doa emeki-emeki.

ABERTZALEAK IMPASSE-AN

Ezker abertzaletasunaren historia Iparraldean 1968an hasten da, alde batetik ETA-rekin eta beste aldetik Frantziako 68-ko Maiatzean eman zen mogimendurekin. Ideia horiek ENBATAn eta horren inguruan hasi ziren hedatzen. Gero, Burgos-ko auzi denboran, nik ENBATA bere buruan sozialist bezala proklamatzera bultzatu nuen eta hala egin zuen, baina ez zuten denek ongi ulertu sozialismoa zer zen. Batzuek ikur bezala hartu zuten, baina bere funtsa gabe. Eztabaidak izaten ziren ENBATA-ren azken urteetan eta 74an Frantsez gobernuak debekatu zuelarrik, HAS sortu genuen batzuk, eta gero Hegoaldekoekin EHAS. **Momentu honetatik aurrera, kosta-**

tu egiten zaio hitz egitea, eta zati-zatika botatzen du ondoan datorrena, Iparraldeko egoera politikoari buruz. Belaunaldien arteko etena argi ikusten du baina denborarekin argituko delakoaren esperantza duela nabaritzen zaio, arte bitartean bizitza bizitzen eta denboraren aurka burrukatzen ari da. Nahiz eta berak ez duen nahi inor mindu bere hitzekin, egoera den moduan azaltzeko eskatzen diogu. Zergatik desagertu zen EHAS? Gazteek EHAS gaizki hartu dute, zeren Iparraldera transposatu egiten bait dute Hegoaldea dagoen egoera. EHAS-ek bere buruari uko egin dio. Abertzale sozialisten ideiak hedatu ditu eta orain impasse batean dago mogimendu politikoa guztia bezala.

Taldexka eta fropuskula asko daude. Eman dezagun joera bat HERRI-TALDE-ena dela, gero EHAS eta hirugarren bat IZAN. Behar bada gehiegi da eta denbora behar da konberjentzia baten egiteko. Behar bada talde guztiak desagertuko dira. Nik polemikak alboan uzten ditut eta, denborak elkartuko gaitu, agian. Aski liteke mogimendu bat, edo biga izan litezke, baina zertarako ukatu behar batak bestea? Nik ez dut mogimendu bakarrean sinesen.

Guk, Iparraldeko lehenbiziko abertzaleek, geure burua laster sentitu dugu zahar. Nola lehenbizikoak ginen, gero gazteagoak etorri dira beren kontestazio guztiarekin eta uste dut ez duten gainditu hori. Ba dakizu, psikoanalisian «aitaren hil-



tzea» deitzen den hori oraindik ez dute konplituia, eta uste dut hortatik sortzen zaigula eztabaida frango, guk zerbait erraitea aski dugu, beste batzuek kontrarioa erraiteko. Hala gertatu da Euskal Departamentuarekin, guk, bereziki nik, nuen ideia hori lantzatu 62aren bukaeran, baina guk ideia hori ukan dugulakoan IPARRETARRAK edo aurka daude. Haiek ekarpen berriak egin dituzte eta ongi da, eta egoki, baina aintzinatik izan den guztia zertako ukatu behar dute? Zertako? ETA—ko lehenbizikoak «zaharrak» zioten aterbetuak zeuden PNV-koentzat, eta ni beldur naiz Iparraldeko abertzale gazteek bai eta ni beldur naiz Iparraldeko abertzale gazteek bai eta ez hain gazteek ere (hori da zoritxarra) zahar bezala edukitzen gaituztela eta gainera PNV-kin parekatzeko, eta hori ez da zuzena, egoera ez delako berdina. IZAN, ENBATAren ingurukoa, PNV-kin parekatzen dute, EHAS ez dakit nik, EIA-rekin edo ta beren burua, dudarik gabe, HASI-rekin, eta hori faltsua da, han ez delako hemengo egoera.

Mementuan ez nago nehon ere. EHAS-en egon nintzen bukatu arte, ENBATA-n ere bukatu arte. 68an, ENBATA, hila zena, berpiztu genuen eta uste dut, berpiztu zutentan nik nuela indar gehien egin. Hiru esperientzia nahikoa da eta ez dut nonbait sartzeko gogorik.

Ezker abertzalea desmobilizatu dago kulturaren salbu, batez ere organizazio mailan, baina bestalde gazteria abertzaletu egin da, hor in-



darra ba da. Gazte asko normalki dira abertzale, gu aldiz paranoia batean edo bizi ginen: bakar batzuek ginen eta beti mobilizatuak eta gaizki ikusiak. Ene alabak (17 eta 14 urte) abertzaleak dira, etxean beti ikusi bait dute abertzaletasuna eta inguruan ere bai, haientzat gauza normala da.

Eta ea lehengo «paranoiko» haiek gaurregun nola dauden ikusiak galdetzean zera diost: ni aurretik behintzat, denek errespetatzen naute, nehorik ez dit ele txarrik edo behar ez denik erraiten. Gero atzetik ez dakit. Hala ere, uste dut errespetua bederen irabazi dūgula.

BUROKRAZIA ESKLABOTASUNA DA

Jon Luis DAVANT-IRATZABALEk bere ogia irakaskuntzatik ateratzen du, Hazparnen egiten du lan, Ecole d'Agriculture de Pays Basque-n irakasker moduan eta baita arduradun edo zuzendari moduan ere, eta dirudienez zuzendaritza horri lotua duen burokrazia ez du gehiegirik maite: Paper betetzeak ez du ezer ekartzen, ez ikasle gehiago, ez ikasleetan jakitate gehiago, ez lantegiari diru gehiago. Hori ere esklabotasun bat da, lan zozo baten meneko esklabotasuna. Nik irakaskuntza maite dut, baina, debaldetako paper betetzea Administrazioarentzat, hori hastio dut gain-gainetik. Hortan denbora gehiegi sartu behar dut. Munduan zerbait hastio baldin badut, burokrazia da, hori eta militar den erakunde guztia, estatuak eta gizarteak militar moduan eratuak baitu dira.


AZKEN GOGOETAK

Nik ez dakit gizon hau bide zuzenean dagoenentz eta eritzirik emateko ere ez naiz inor, hortaz gure Iparraldeko anaiek dute hitza, baina lan egiteak ezer balio badu, meritu hori ezin dio inortxok ere uka. Amaitzeko, hona hemen bere gogoeta batzu: Ene burua berriz gaztetzen sentitzen dut, zeren umeak ditugunok haurrekin batera bizi egiten gara. 18 urte nituelarik, asko maite nuen poesia, eta poema txiki batzuek idazten hasi nintzen, bai euskaraz eta bai frantsesez. Nola ikasketak teknika mailean egin nituen, hori guztia galdu egin nuen. Bestalde politikan sartu nintzen abertzaletasunagatik eta horrek literaturaren aldetik urte asko galerazi dizkit, baina ene haurren bitartez berriz lotzen naiz ene 18 urtetan poesiarekin nuen maitasunari: gure haurren bitartez denboraren aurka goaz, pixka bat eternitatean sartuz.

Eta bukatzeko, zera nahi dut esan, gogoan dudala iaz sari hau irabazi zuena: Joseba Sarrionandia; askotan zoritxarra izan dute euskal poetek, Etxahun Barkoxekoa oso malerus bizi izan zen, Lauxeta fusilatu egin zuten bere adiskide Federico García Lorca bezala, Enbeita ere kartzelan eduki dute... Indar guztiez nahi nuke Joseba ere laster aska dezentzen.

J. R. BILBAO





Anaitasunak: «Hasteko, konda iezaguzue erakundeon historia...»

Jesús NABERANek: «AEK hirugeigarren urteetan sortu zen, beste mogimendu batzuren antzera: literatura uhin berria, ikastolen mogimendua, mogimendu politiko berria e.a. Koordinakundea herri dinamika batek bultzatuta jaio zen. Bere historia gora behera askotakoa da eta bere bilakaera izan du. Bilakaera hau gorakakoa izan da, bai ikasle-kopuru aldetik, bai bere egitekoaren kontzientzia aldetik.

Anaitasunak: «Zer datu daukazue horri buruz?»

Naberanek: «Ba ditugu Euskal Herri mailakako estudioak. Gipuzkoakoak eginda daude eta publikatzea espero ditugu. AEK, ikaslegoari dagokionez, beti gorantz joan dela ikusten da eta 1976 - 1977 urteetararte gorakada normala izan zen. Aipatutako ikasturte honetan, hots, 1976 - 1977ean gorakada itzela izan zuen Koordinakundeak, % 300koa. Goreneko gailurra urte hauetan jo zuen. Urte hau Francoren heriotza ostekoa da eta jende asko eta asko euskara ikasteari lotu zitzaion. Orduan, normala den legez, gorakada nabarmen hori jaso ondoren beherakada etorri zen, baina ez zen lehengo topera heldu, laburrago izan baitzen. Datuek esaten digutenez, esaterako, 75 - 76. ikasturtean 4.162 ikasleak zeuden Gipuzkoan. 78 - 79.ean, 8.387 genituelarik. 80 - 81.ean, berriz, 6.585 lagun izan dira. Ikasle -kopurua ordutik hona mantendu egin da. Gorakada honen ezaugarria zera izango litzateke, industri- hirietan gertatu dela gehienbat: Gipuzkoan, esaterako, Errederian, Hernanin, Tolosan, Goiherri inguruan, ikasle-

Euskararen irakaskuntzaren dinak bizi: beste

GURE HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZAREN PROZESUA OSO NEKETSUA IZAN DA URTE BATZUTAN. ALFABETATZE EUSKALDUNTZERAKO AHALEGINETAN JO TA KE HASITA GAUR ARTE IRAUTEN DUEN BILAKAERA BI ADARRETAN BANATU ZAIZKIGU: AEK ETA EUSKAL GOBERNUAK SORTU BERRI HABE.

goaren % 66a, kokatzen da eta Eibarrren, Leintzen eta Zumarraga aldean % 25a ikusten dugu.

Anaitasunak: «Ikaslegoaren osaketaz ezertxo esango zenuguke? Nola-koa da?»

Naberanek: Denetarik daukagu, Emakumeak esku-hartze garrantzizkoa eduki du bilakaera honetan. Alfabetatze -euskalduntze prozesu honetan gazteek ere inportantzia handia izan dute. Ikasleak hogeitik hogeitamar urteko bitarte horretan daude, gehienbat. Beste datu bat zera da: Estratu guztiak daudela integraturik. Gure klaseak ez dira jende mota batez bakarrik osatzen. Ba daude langileak, zuzendariak, gerenteak, goi mailako ikasleak, intelektualak, etxekoandreak, eta baita ere etorkinek gero eta parte gehiago hartu dute. Ikusten denez, historia barruan, eta ikaslego kopuruari dagokionez, gorakako bilakaera izan dugula, eta irakaskuntza gaitasunari buruz eta eraketari-buruz ere bai. Honela, zenbat eta jende gehiago euskararako, euskal eskolèk organiazio bat, eraketa bat antolatu behar

kutzan asmo ezber AEK, HABE eta

**HORREN BERRI
ZEHATZAGOAK JAKIN
NAHIZ
ANAITASUNAKO
BULEGOETARA
HURBILDU DITUGU BI
ERAKUNDE HAUEN
ORDEZKARIAK.
AEK ALDETIK, JESUS
NABERAN; HABE-TIK,
JOXE JOAN TXABARRI.
HONA HEMEN BERAIEK
AZALDU DIZKIGUTEN
NAHI ETA KEZKA
GUZTIAK:**



izan dutela ikusten da Erakundeak, arduradunak, herri arduradunak, eskualde arduradunak, herrialde arduradunak eta nazio mailako batzordea ere ba ditu. Didaktika aldetiko eskakizunei erantzuteko ere ahalegin handiak izan dira. 1978 - 80 urteetan didaktikazko fruituak eduki ditugu eta ikasleei zuzendutako Urraspideak atera ditugu irasleen prestakuntzerako Ikastaroak ere antolatzen dira. Orain urte bi eta iaz ere hainbat irakaslek hartu zuen parte ikastaro honetan. Esaterako, iaz bertan, 700-800 irakaslek hartu zuten parte, hauetariko 400 bizkaikoak zirelarik.

Anaitasunak: Zenbat euskaldun irte-ten da urtean AEKtik?

J. Naberanek: Datu estadistikoak bakarrik Gipuzkoan daude eta mailaka. Lehenengo mailan makina bat pertsona apuntatzen da, baina gorakada hori pasatu ondoren bigarren eta hirugarren mailetan mantendu egiten dira. Hemen ez dauzkat datuen kopuruak baina lehengoaz konpatatuta hirugarren mailakoak ugari direla ematen du eta honek

hainbat pertsonak oinarrizko euskara AEK barruan hartu duela esan nahi digu. Orain, oinarrizko euskara hori mantentzea beste arazo bat da. Eskolatik kanpora atera ostean askok ez du euskara erabiltzen eta horregatik ezin daiteke kontrola zenbat heltzen den euskara zeharo menperatzera.

Anaitasunak: Seintzu izan dira AEK-
rentzako ostoporik inportanteenak
bere lana aurrera eramateko?

Naberanek: AEKk, bere historian zehar aurkako faktoreak eduki ditu. Esaterako, oso inportantea dugu inguruaren falta. Eskolak bakarrik ez du euskalduntzen. Inguru euskalduna behar-beharrezkoa zaigu. Beste faktore bat garai batetan, erdi klandestinitatean ibili behar izan genuela izan zen, eta, noski, instituzio publikoen laguntzarikeza. Orduan diru eskasaz eta diru faltan egin dugu guztia. Orain ere, instituzio publikoak ez dira hain aldekoak eta hori, gure ustez, AEKren funtzionamendurako oztopo handia da. Guk bokazioaz sortu zen herriko instituzio bat osatzen dugu, eta zerbitzu publi-

ko bezala diru publikoa eskatzen dugu, eta dirutza hau, neurri handi batetan falta zaigu. Gauza hala egonez, bi bide ditugu: Militantzia, boluntarismoa, irakasleak ez kobratuz edo haien soldata gutxituz, edo finantziatsio pribatua sortzea, ikasleei kuotak gehituz. Bestea, guk eskatzen duguna, zera da: ente publikoak publikotasuna eman diezagutela. Hiru probintzietan Eusko Jaur-laritzak, Nafarroan Diputazioak, Iparraldean beste edozein ente publikok. Horixe da gure eskakizuna: Publikotasuna. Gu ez gara lukroagatik lanean aritzen den erakunde bat eta orduan diru publikoaz mantendu behar genuke.

Txabarrrik: «Nire ustez, eztabaida puntu nagusi batetan dago, betikoan. AEKrengandik dagoen publikotasunaren errebindikazioa eta Gobernuaren ikuspegitik publikotasuna nolakoa den. Publikotasuna aipatzean AEKk hitz honen esan nahi desegoki bat erabiltzen duela uste dugu. Publikotasunak esan nahi du Gobernuak-eta Gobernuak soilik du publikotasunaren maitza-ente bati

orizpide batzu ematen dizkiola bere jokabidearen aurauera jokatzeko. Horixe da publikotasuna eta honek, noski, diru iturri bat dauka sistema politiko baten antolaketan. Zer gertatzen da hemen? Publikotasuna eskatzen dela baina honen atzean Gobernuarengandik ihez egin nahi bat da eta AEKri komeni zaion bezala funtzionatzeko gogoia dela. AEKK beti esan digu bere burua autogestionariotzat hartzen duela eta burokrazia onartzen ez duela. Orduan gertatzen da, herri honetan agintzen ari den gobernuak ez duela bere burua autogestionariotzat hartzen eta burokrazia onartzen duela, kontuz, ez naiz burokraziaren zentzu peioratiboaz ari. Baina publikoa dela esatea, eta gero publikoaren aurkako bi irizpide hartzea...

Hemen publikoa da Gobernuaren crizpideak jarraitu eta aplikatu egiten dituen taldea. Beste inor ez. Gure ustez, euskararen irakaskuntzak publiko izan behar du puntu honetan, eta momentu honetan Gobernuak ez da Autogestionario. Hau honelakoxea da, eta maila pertsonalean gustatu edo ez, onartu egin behar dugu. Erakundeak-eta euskara-

ren irakaskuntzarakoak ere bai, noski-herri honek daukan parlamentuarenpean eraiki behar dira. 1979ean egin genuen planteiamenduan bi puntu hauek bazeuden eta AEKK ez zituen onartu. Guk berriro diogu euskararen irakaskuntzak publikoa izan behar duela eta ikasleei ahalik eta gutxien kobratu behar zaiela, kosto minimoak izan behar dituzte. Hori oso garbi dugu. Orain, momentu honetan gustatu edo ez gustatu boterea daukan Gobernuak, hori irizpide politiko baina ez da eta publikoa izateko Gobernuaren irizpideen barruan sartu egin behar da eta hor ez dago beste mamirik. Gero era ba dago Naberanek esaten duen beste arazo bat: kontrolarena. Hemen publikoak diren ente guztiek Parlamentuaren kontrola daukate, gustatu ala ez gustatu. Hori herri guztietan gertatzen da eta Euskal Herrian ere bai, noski.

Anaitasunak: Hala ere, askotan aipatzen da Valencia-ko mahai-inguru batetan esan esan zenutena: Gobernuak ez zuela herri erakundeak suplantatuko...

Txabarrik: Bai, hau oraintxe irakurri



● **Koordinakundea herri dinamika batek bultzatuta jaioio zen. Bere historia gora behera askotakoa da eta bere bilakaera izan du. Bilakaera hau gorakoa izan da.**



● **Nire ustez, eztabaida puntualak Talde bakoitzat bere erara bere historia eta antolamendua BE-k ostera, gobernuak er-**

du Anaitasunaren azken ale honetan. Zera jartzen du: «Las instituciones oficiales apoyarán, canalizarán y promocionarán, pero nunca suplantarán el papel de las iniciativas populares, y menos aún en el País Vasco, dada su dinámica de lucha en los últimos años...». HABE, euskaraen irakaskuntzan bide publiko bat eramaten duen entea da. Publikoa izatea, beste gauza batzuren artean, konkurtso publikoak irekitzea eskatzen du. Orduan, guk irakasleak edukitzeko Kultura Sailaren ohar bat ipintzen dugu komunikabideetan, zenbat irakasle behar dugun esanez. Eta nahi dutenak presentatzen dira, AEKKoak izan, Oñatibia ikastetxeak izan, Labayrukoak izan... Konbokatoria bat egiten da eta kito! Instituzionalizatze prozesu bat ireki da eta hor irakasle izateko nahi duena presenta daiteke... HABEren sorrerak euskararen irakaskuntzarako zera lortu du, herri honek hainbat irakasle profesional ba dituela, leku egokiekien eta ikasleen kostuak erabat gutxituta daudela. Gure platilla profesionala konkurtso publiko baten bidez egin dugu, ez AEKri kenduz. Gure konbokatoriara 70 irakasle presentatu ziren eta examina pasatu ondoren Euskal Gobernuaren funtsionarioak dira. Orduan, bi puntu ditugu eztabaidan: bata publikotasu kontzeptuarena, bestea kontrolarena.

J. Naberanek: Publikotasuna ez du



agusi batetan dago, betikoan. tzen du publikotasuna: AEK-k herrikoian aurkitzen du, HADion aginduan.

Gobernuak sortzen, nire ustez. AEK zerbitzu publikoa izan zen eta Gobernuak ba diren zerbitzu publikoak eta edozein elkarte bultzatu eta indartu behar ditu. Publikotasunaren kontzeptu honetan guk ez dugu publikoa gubernamentalarekin identifikatzen. Publikotasuna praktika bategen sortzen du eta orduan laguntza eman behaz zaio. AEK erakundetuta egon zen 1979. urtean, aurreprojetua presentatu zenean, gobernuaren aldetik publikotasuna errekonozitzea eskatu zuenean, bakarrik minimo batzu jarri zituen. Guk nahi genuena ere funtzionamendu demokratiko bat zen, ez dugu edozein postu hatzamarrez izendatzerik nahi. Funtzionamendu demokratikoaren alde gaude, bai eraketaz bai didaktikaz. AEKk eduki duen herridinamika mantendu nahi dugu. Euskal Herri osoan funtzionatu nahi dugu. Gure ustez herri-dinamikak ez du euskalduntze-alfabetatzeen ikuspegi akademikoetara bakarrik mugatzen. Eskolak ez du soilik euskalduntzen. Herriak, euskara duen herriak, sartu behar du prozesu honetan, euskara daukanak ez daukanari emanez Irakaskuntzak, berak, modu berekoa izan behar du, ez akademikoa ematen badu, esaterako, gu beti egongo gara prest diru publiko hau kontrolatzeko begiraleak jartzeko. Nahi ez duguna ideologiaren trabase bat da. Parlamental kontrola, bai, baina ez ideologiaren trabaseaz. Ideologia

leku guztietan dago, eta, euskararen irakaskintza azpian ere bai. Ez dugu Gobernuak herri-dinamika hori suplantatzerik gura, lagun diezagula baino.

Txabarrik: Hemen suplantazio hitza aipatzen da. Guk argi daukagu zer den hau. Helduen Alfabetatze eta Euskalduntzea instituzionalizatu egin behar da eta instituzionalizatzeko bideak administrazioak ezartzen ditu, ez administratuek. Azpian filosofia politiko bat dagola esaten dute. Beno, hemen proiektu politiko bat defendatzen ari gara eta jakin behar dugu zer den demokratikoa eta zer ez den. Hori Parlamentuan eztabaidatzen da eta gero Administrazioak Parlamentuan erabagitarikoa bete beharrik dauka eta kitto! Besterik ez. Hatzamarrez bai, hatzamarrez ez, nola salbatuko den euskara... Ez da gure problema. Hemen bakoitzak euskara nola salbatuko den esaten digu: EHE taldeak, Mitxelena bere polemikaz, UZEIk, AEKk beste horrenbeste. Hemen nork bere lana bete behar du ahal bezain ondo. Denon beharra dago, noski, baldintzak administrazioak berak jartzen ditu. Guk, honen arauera, euskararen irakaskintza instituzionalizatzeko bide bat zabaldu dugu, biderik demokratikoena, Parlamentuan onartutakoa, hain zuzen. Parlamentuak esaten du euskararen irakaskintza instituzionalizatu behar dela. Konkurtso publikoaz egiten da eta hori AEKri presentatu genien baina hauek ezetz «guk ez dugu tribunalik onartzen» esan zu-

ten. «Nor ausartuko da gu epaitzera».. Anda puñeta! Zoroen herrian bizi ote gara? Instituzioak bide publikora eramateko konkurtso publikoak egiten dira eta tribunal bat ba dago, eta handik pasatzen da jendea. Ez dago beste problemarik. Horixe digu HABEren historia. Bestea proiektu polikoa da. Ez da gure problema.

Naberabek: Euskal Kontseilu Nagusiarekin negoziatzen hasi ginenean puntu minimo batzu jarri genituen, diru publikoa, begiralen kontua eta territorialitatearen kontuak, beste batzuren artean, aztertzeke.

AEKren gutxiengo batek minimo horiek kontutan hartu gabe Euskal Kontseilu Nagusiaren proposamena onartzea nahi zuen, baina eztabaidatu ondoren gehiengoak EKNren aurreprojetua onartzea erabaki zuen, baina minimo horiek presentatu.

EKNrekin negoziaketan hasteko berderatzi puntu onartu behar genituen eta AEKk onartu egin zituen kontsiluarekiko harremanak hasteko. Orduan Lazkaon biltzea erabaki genuen negoziaketak eukitzeko.

Hala ere, EKNren errepresentantea ez zen agertu. Telefonoz jo ziguten ez zirela azalduko esanez eta negoziaketak gelditu ziren. Ez genuen erantzunik jaso. Gero Jaurilaritza sortu zen eta Garaikotxearekin berarekin egon nahi izan genuen baina ezina. 1980eko Ekainetik aurrera Jaurilaritzaren errepresentantea nor zen jakiteko ahaleginak egin geni-

● **HABE AEK suplantatzeko jaio ote da? HABE euskararen irakaskintza instituzionalizatzeko jaio da, hori argi ikusten du Txabarrik.**





tuen. Etxenikeren bitartez Amatiño zela jakin genuen. Gero elkarrizketa batzu izan genituen KulturKontseilariarekin 1981eko udaberrian 81-82 urteko plana presentatu genion Euskal Gobernuari. Gasteizen aurkeztu zen, Aste Santuan edo. Eusko Jaurlaritzak plan hori aztertzeke denbora beharra zeukala esan zigun epe bat eskatuz, Parlamentuan eztabaida gogorra izango zen eta. Orain arte ez dugu ezer hartu. Gobernuaren erantzun bakarra HABA sortzea izan da.

Txabarrik: Hor badago argitu beharreko punturik. Naberanek EKNren ordezkaria ez zela Lazkaon agertu gogorazten du. Ezin daiteke historia ahaztu. Egun berean, Donostian bildu ginan eta egun berean EKN desagertu zen eta Gotzon Olartek dimititu egin zuen, pare bate hilabete pasatu genuen Kultur Kontseilaririk gabe. Orduan, mementu hartan ez genekien ere nor izango zen KulturKontseilaria. Jarraian, Ramon Labayen izendatu zutenean, honek kargoak eta ekipo osoak egiteko aste tarte bar behar izan zuen eta honetan hilabete batzu joan ziren. Prozesu historiko hau ahantzerik ez daukagu. EKNtik Jaurlaritzara botazioak daude, Autonomi Estatutua eta abar. Hori guztiori bukatu eta gero, negoziaketak berplanteatzen diren egunean, arazo honi irteera instituzionala eman behar zaiola pentsatzen da, Gobernuaren programan dago eta. Eztabaida segitzean, azpikaldean filosofia politiko ezberdinen auzia dagoela ikusiz. HABA sortzen dugu, Gobernuak ahaleginak egiten ditu euskararen irakaskuntza instituzionalizatzeko eta horretarako bide bat markatzen

du. Hemen ez dago esaterik gai hau Gobernuari ez zaiola axola. Gobernuak ez du inor marginatu nahi eta AEKren irakaslegoari ere instituzionalizatzeko prozesu horren atea ireki dio.

Anaitasunak: Zein irakaskuntz-moeta nahi duzue? Nondik datorkizue dirua? Etorkizunerako prespektibak...?

Naberanek: AEKk 1981eko ikasturtea amaitu baino lehen alternatiba bat jarri zuen. Euskararen irakaskuntz-alternatiba. Helburu nagusiak markatu genituen, bai didaktika aldetik baita eraketa aldetik ere. Laburtzeko, AEKren euskararen irakaskuntzarekiko helburu nagusia adineko jendea euskalduntzea zen eta Euskal Herriak bere hizkuntza bereskurtzea elebitasuna soziala lortuz epe laburrera. Ikasleen eskabidei erantzuteko prest egon nahi genuen eta honek irakaskuntza nolakoa den baldentzatzen du, ahalik eta lasterren Euskal Herri berreuskalduntzeko. Gure helburua epe laburrera hitzun asko sortzea da. Honen ondorioz, ikastaroetako ordu kontua sartzen da. Honela ikastaro intensiboagoak ipini behar ditugu irakaskuntza planifikatuz, irakasle eskolak ere bultzatuz. Eskola hauek eskualde batzutan funtzionatzen dute. Bizkaian Bilbon, Busturian eta abar. Hitzun asko sortzeko ikaslegoari eukera eman behar zaio. Astean sei ordu sartu ezin badu, lau eman ditzala, bere bere posibilitateetara egokituz. Eta beste gauza garrantzitsu bat: Giroa euskararen aldekoa nahi dugu, eskolatik at giro euskalduna egon dadila, AEKren azpiegituraz baliatuz. Euskaltegi gehiago ire-

kitzen ari gara, ordu gehiago ematen baitira hango ikastaroetan, eta irakasleak gero eta prestatuagoak eduki behar ditugula koan gaude. Euskaltegiak auzoetako gaueskolen dinamizatzaileak izan daitezela nahi dugu, gaueskolekin batu, euskaltegietan klauuskaltegietako materiala gaueskoletara eramanez e.a. Ikasturte honetan zenbait euskaltegi berri zabaldu ditugu: Bilbon, R.M. Azkue; Donostian, Rikardo Arregi, Bizkaian, Lauaxeta...

Anaitasunak: «Zein da AEKren benetako ikasle - kopurua?»

Naberanek: «Bizkaikoak, orokorki, 11.000, iaz. Aurten, urrian, 9.700 edo matrikulatu dira. Geroztik gehiago apuntatzen dira eta udako ikastaroak egiten dituztenak kopuru honen barruan sartu gabe daude. Kopuru hontan ez da kontatzen doublea ikasleak beste ikastaro bat egiten badu.

Txabarrik: «Lehenago esan duzu AEK euskaltegiak sortzen ari dela. Nik gauzatxo bat gogoratu nahi nuke. Orain ez dela asko, Donostian ilazpi sortu zenean, Gipuzkoako AEK—Orduko AEK— ilazpiren kontra egon zen. Antzeko prozesua eman zen Bilbon, Gabriel Aresti euskaltegian. Han, Jon Ajuriak askotan esaten duenez, AEK ofiziala eta bere buruak euskaltegi ofizial hori sortzearen kontra jarri ziren. Euskaltegiak babesteko bidera berandu jo zuten. Ezin daiteke ahaztu, instituzionalizatzeko prozesu bat ireki denean, gaueskoletatik euskaltegiarako pausu hoiak ematean, AEK bera honen kontra egon denik. Eta ezin daiteke ahaztu ere Bilbon dauden zenbait euskaltegi haundi AEKren biderean alde az daudenik. Bilbo Zaharra-ren kasua oso nabarmena da...

Naberanek:

«AEKk bere alternatiba HABA sortu aurretik aurkeztu zuen. 1980-81 ikasturtea amaitu baino lehen, alternatiba AEKren zentru guztietan presentatu genuen Lehenago AEK barruan eritzi azberdinak egon direla euskaltegiei buruz? Hori normala da, baina AEK ez doa euskaltegien kontra.

Beste puntu bat argitu nahi nuke. AEKren prozesua gaueskoletatik eta herri-eskoletatik atera ditugun esperientzietatik irten dela euskaltegien beharra, eta ez alderantziz.

Txabarrik: «Beno, berriz diot gaueskoletako zenbait pertsonak ilazpi eta Gabriel Aresti sortu beharra ikusuz zutela eta AEK, AEK ofiziala, horren kontra jarri zela».

tzen da eta Gobernuak, aurten, 106 milioi eman ditu HABEren sorreran eta 66 milioi besteak subentziona-tzeko».

Anaitasunak: «Horixe da kritikatzeko puntu bat. Nolatan AEKK ikasle kourpur haundiagoa edukiz HABEri 106 milioi eta besteei 66?

Txabarrik: «HABEren euskaltegiak zentro publikoak dira eta zentro publikoak esan nahi du Gobernuak % ehun bereganatzen duela. Euskararen irakaskuntzak publikoa izan behar du. Gero, zuk publikotasunetik aparte beste gauza bat egin nahi baduzu. Hori, zure problema da. Gobernuak ikasle bakoitzari bere euskararen irakaskuntza zer kostatzen zaion jakin nahi du. Hau erraz da egiten multiplikazioekin. Zuk ikasle batek urtean 200ordu jaso behar dituela jartzen duzu eta irakasleari 200ordu emategatik 700 pezeta orduko pagatzen badiozu, talde honen kostea 150.000 pezetakoa da. Talde honek 15 pertsona baditu eta ikasle bakoitzari 40 pezeta orduko kobratzen bazaio, orduak 200 izanez, hementik 120.000 pezeta ateratzen dira. Hau betetzera gatoz. Hemengo defizita, irakaslearen koste bera 20.000 pezetakoa da. Non dago diferentzia? Hauxe da, askoz gutxiago kobratzen zaiela HABEko ikasleei. Zuk, zentro pribatu batetan zeure planifikazioa egin beharko duzu. Administrazioak bere eskalak ditu. Goikoak agintzeko omen daude. Irakaskuntza pribatuak alde on asko ditu baina garestiagoa da. HABE Eusko Jaurlaritzaren kultur saileko zerbitzu bat da.

Anaitasunak: «Baina pribatuak publikoak baino askoz gehiago direla gertatzen da».

Txabarrik: Hor, nolabait, plangintza baten problema dago. Guk, iaz, zazpi euskaltegi ireki ditugu eta eta gure asmoa da euskaltegi hauen esperientziaz datoren urtean gehiago zabaltzea. Hurrengo ikasturtean Bilboko euskaltegiak doblatu egingo dira, arratsaldean klaseak ere emango dira. Donostian eta Gasteizen beste horrenbeste. Gipuzkoako Diputazioak erabakita dauka jadanik Eibarren, Tolosan, Errenderian, eta Irunen euskaltegiak irekiko direla. Hori beste urrats berri bat da gure helburura ailegatzeko. Guk herri bakoitzean zentro publiko bat irekitzea nahi dugu. Pribatuei subentzioak emango zaizkie».

Naberanek: «Hori gauza anormala da. Guk ez dugu AEK ente pribatutzat jotzerik admititzen. Arraroa da 800 ikasle eta 70 irakasle dituen enti-



Naberanek: AEK ofiziala ez da euskaltegien kontra joan. AEKko batzu, beste batzutan kontra egongo zirela? BA, bai».

Txabarrik: «Beno, ni, honek markatu dituen helburuekin eta abar, Konforme. Erreferentzi - puntu bezala, ba dirudi kopiatuta dagoela».

Naberanek: «Nik uste dut aldrebes izango dela...»

Anaitasunak: «Guk ez du gu uleretzen nola euskararen irakaskuntzarako bi erakunde elkar ikusi ezinik dauden... Ba dirudi HABE AEKren kontra eta AEK HABEren kontra daudela».

Txabarrik: «Ez, Hemen gertatzen dena instituzio bide bat ba dagoela eta zenbaitek ez duela jarraitu nahi. Bi jokaera ezberdin daude. Nork daukan arrazoa? Hori historiak esango du. Denborak...»

Naberanek: «Zuk esan duzu instituzionalizatze prozesu bat ireki dela eta Gobernuari ez zaiola axola filosofia politikoen auzia. Guk Euskal Herrian filosofia politiko ezberdinak daudela esaten dugu. Ados gaude. Arau etikoak exijitzen ditugu. Beste-rik ez. Ez suplantatzea. Gobernuak AEK bezalako mugimendua ez aipatzea...»

Txabarrik: «Hemen, Gobernuak euskararen irakaskuntzarako erakunde bat sortu du eta honen barruan sartu nahi izan ez dutenentzat subentzio bide bat jarri du Guk ez dugu inor baztertu. Nik dakidanez, hiru probintzi honetan 66 milioiko pre-supostua ez da inoiz jaso. Eta guk dirutz a hori ematen dugu. Ezin dai-teke esan ahazte bat dagoenik. Go-bernuaren filosofia pezetatan neur-



tatea publikotzat jotzea 27.000-30.000 ikasle eta 800 irakasle baino dituen publikotasunaren zentzutik urrunduz».

Anaitasunak: «Gasteizko bilera fatamatu horretan, zerrendan sartuta egon arren, ez ziren zenbait euskaltegi eta gaueskola agertu. Zergatik suposatzen da agertu ez zirenek onartzen zutela?»

Txabarrik: «Problemarik ez edukitzeagatik. Hori arras normala da. Fitxa batzu ireki eta zenbatu egin ziren eta zentro guztiei bidali ere bai. Fitxak bueltatu ez bazituzten haien problema. Bilera hontan gaueskola eta zentru guztiek beren lehengotasuna aurkitzeko administrazioarekin pixkanaka elkarrizketan sartu nahi zela agertu zen. AEKren jendea kanpora joan zen, itxuraz ez zuten hori gogoz hartu. Gero beste bilera batzutura ez daitzeaz kexatzen dira. Administrazioak ohar batzu ipintzen ditu. Gero, zuek ez baduzue jaramonik ere egiten...»

Anaitasunak: «Subentzioez ez zarete akordio batetara heldu, antza denez. Nola banatuko duzue dirua? Ba dago susumorik examina moietari buruz eta administrazioak haren ondorioak erabiliko dituela bere entea HABE, laguntzeko...»

Txabarrik: Subentzioak mailaka egingo dira. Honela lehengo mailakoentzat, 1.000 pezetakoz izango da. Bigarreanean, 2.000; hirugarreanean, 6.000 eta laugarreanean, 14.000. Baldintzak jarririk daude, hain zuzen berrehun orduko ikasta-

roa eta sei ordu astean gutxienez eman behar zeka erabaki genuen. Fitxa batzu eman ziren eta halako epe jakin baten barruan Jaurlaritzak hartu behar zituen. Lehenengo eta bigarren mailako subentsioa nahiko txikiak izanik a fondo perdidu ematen ziren eta hirugarren eta laugarren mailakoek examina baten bidez jazoko dute subentsioa. Hortaz polemika sortu zenez berriz komentatu ondoren diru guztia zentroeirematerearen alde jarri ginen. Honen arauera, guk hamasei mila fitxa jaso ditugu eta baremoak aplikatuz hirurogeita sei miloiko subentsioa ateratzen da. Gure asmoa da lehenengo eta bigarren mailakoa orain pagatzea eta hirugarren eta laugarren mailakoa Ekainako examina gainditzean. Dirua zentru bakoitzari emango zaio lege nortasuna baldin badauka.

Anaitasunak: Zer da lege nortasun hori?

Txabarrik: Zentro batek lege aurrean errekonozituta egon behar du. Bestela dirua pertsona indibidualaren kontuan egin behar da eta Gobernuak ezin du hola jokatu.

Examinari buruz susmoak eta badaudela? Hori denborak esango du. Hortarako HABEn pegagogo eta sikologo talde bat badago eta ez dut



uste konotaziopolitikorik daukatenik esan daitekeenik. Eta examina hori egingo dute.

Anaitasunak: Orduan, examina HABEko atzuek planifikatuko dute? Hori ez al da susmagarria?

Txabarrik: Normala da instituzionalizate bat irekitzen den mementuan susmoak agertzea. Hori denborak esango du. Problema HABE eta AEK enfrontatu nahi dela da. HABEko euskaltegietan tekniko batzu daude pedagogo eta sikologoak. Diputazioak arkitektuak dituen bezala. Ezin daitezke gauzak kontra jarri.

Naberanek: Subentsioak zentroetara doaz AEK erakunde bezala dirua har ez dezan. Nortasun juridikoa soluzionatzen da Madrilen paper batzu eginez. Gure ustez AEK badauka zabalkunde eta historia Euskal Herri osoan, honela bere nortasuna azalduta dagoelarik. AEK barruan problema zera da: zentro homologatuak -Euskaltegi Nagusiak-, komenio partikularrez egin daitezkeen zentruak eta beste batzu nabarmen-tzea. Eta gero Gau Eskola ere bada-go. Jendea diskriminatuta egongo da. Subentsioen kontua jakitean zentruetako ikasleek asanbladak egin zituzten. Honela leku batzutan ez hartzea erabaki da.

Txabarrik: Gaueskolen kontuan dirua banatu aurretik zentsoa egin behar da. Dena argi egongo denean Gobernuak dirua Udalarari emango dio honek banatzeko.

Gu, geure plangintzari segituz, Hondarrabian barne ikastaro bat egiten ari gara, oso ondo doanez datorren

urtean Giherrri beste bat egingo. Bertako euskal eskolek hori onartu dute eta lanean ari gara.

Naberanek: Gohierri bere arazoak eduki ditu HABEren eskutik ikastaroak antolatzeko eta, lehen esperientzia, euskalduntzen prozesu osoa irekitzekoa, lau hilabetetan eta AEKekin egin zuten. Oso ondo at-erazten baina ehun mila pezeta kostatu zitzairen eta guk dirua aldetik ezin dugu hori egin. Hemen euskararen irakaskuntzarako plangintza orokorra egin behar du Eusko Jaurlaritzak eta gu inplikaturik sentitzen gara. Bortereak ez du plangintza hori behar bezala abordatzen. Euskal Giroa sortu behar da, ez klaseak antolatu bakarrik. Guk Gobernuari plangintza serioa eskatzen diogu.

Txabarrik: Argi dago, plangintza hori HABEren eginkizuna ez dela Gobernuak HABEri helduen alfabetatze euskaduntzerako euskaltegiak irekitzea esan dio. Eta giroa ere eginez goaz. Gipuzkoan, esaterako, egunean hamabi ordu euskaraz daude irratan, Bilbon, sei. Telebistaren proiektuak ere aurrera jarraitzen du.

Anaitasunak: AEKren plangintzaren alde ez egoteagatik ikusten den banaketaren beldur ez al zarete? Ez al dago AEK apurtzeko arriskurik,

Naberanek: AEK oso serioa planteiatu du bere etorkizuna. Ponentzia batzu Euskal Herri mailan presentatu ditugu. Debatea eskualdeka eramango da eta AEK zer eta nolakoa izan beharko duen erabakiko da. Zein iritzia dagoen ere agertuz.

J.M. PASTOR



YANKIAK AURREZKIAREN AURKARAKO OMEN

Amerikarrei, egia esan, zaie bat ere gustatzen aurrezki, edo behintzat, horixe izan da azken urteotan adierazi egin digutena. Iaz, kasuriko, sartze erabilgarrietatik %5,6 baino ez zen inbertitzen aharroan. Beraz Europan baino askoz gutxiagi zen amerikarrek aurrezki kutxa eta bankuen eskuetan jartzen zuten dirua hona hainbat kasu esate baterako: Alemanian %11,11a sartzen zen bankuetara, Kanadan %12,7 eta Japoiari %14,2.

Baina amerikarrek geroago eta gutxiago aurreztu dute urterik urte, 1975. urteko udaberriari, adibidez, %10,7a gordetzen zen aktibitate honetarako. 70 urteetako inflazioak aski markatu ditu hango biztanleak aurrezteari kasurik ez egiteko.

Orain, aldiz, eta bertoko lehendakariak bultzaturik beste ikuspegi bat eman nahi zaio aurrezkiari. Planak eta lanak zabaldurik daude nonahi eta yankiek badute aukerarik zein eratako aharro mota den gehien interesatzen zaiena jakiteko eta harantz hurbiltzeko.

Ikus ditzagun zenbait era ezberdin aurrezki hau aurrera eramateko, Ipar Ameriketara, noski:

All Saversak aurrezki zertifikatuak dira eta hauek erosteak zergetatik desgrabatzen du eroslea. Aharraztaileak nonahi eros ditzake zertifikatuok 500 dolar inbertituz, inbertsioaren truke hauxe da jasoko duena: Tesoreria Letrek izango duten errendimientuaren %70a, hau guzti hau urte beteko epera inbertituz gero.

IRA izenez ezagutzen da Erretirorako asmatu den oharro moeta berezia. Hemen, pentsio sistimak babesten ez duen jubilatuak bere erretiro berezia asma dezake fiskoari ezer ordaindu gabe eta urtean



1.500 dolar aurrezuz (250 gehiago ezarleak lan gabe dagoen emazterik balu).

Baina, egia esan, aurrezki mota hauek dirudunentzat baino ez dira. Newsweek astekariak dioen bezalaxe aharro mota hau bakarrik izan daiteke errentable ezartzen den diru kopuruak 35.000 edo 40.000 dolaretik gora jotzen duenean. Hortik behera ez da inoiz errentable izango. Eman dezagun dolarra hirurogeita hamar pezetatan legokeela, pentsa beza irakurleak zer nolako inbertsio galanta egin beharko aharreturiko dirua lehiotik ez botatzeko.

Ekonomi larrialdiak egokiak omen dira aurrezki zabalteko. Larrialdiak badu ere langabetuen artean dirua gordetzeko zaletasuna zabaltean, asko baitira haiek zorrak

berehala ordaintzeari ekiten diotanak zor zergen interesak igo ez daitezene eta, bestalde, gerta dakioken langabezia gairiditzeko dirua bankuetara hurbiltzen dutenak estualdiren batetan irtenbiderik eskura ahal izateko.

Amerikarrek badakite haien ekonomia aldatz behera doana, baina 1982. urtearen bigarren aldirako itxaroten da lehen errektibazioaren agerpena.

Reagan-ek bultzatzen duen programak helburu oso konkretua du: Ameriketako burgesia aurrezkizaletea. Zerbait asma beharrez aurkitzen dira errepublikazaleak USAn hiru urtetan zehar 750.000 dolar bultzatu nahi baldin badute dirujoko berrira.

IÑAKI POLO



EGUN ON
NEKAZARIOK
ZERGAK KOBRA-
TZEKA GATOE!



ZERGAK!
INPUSTOAK!
BETI BERDIN...

NEKATU NAUZUE!
EZ DUT ORDAINDU-
KO BESTE ZENTIMO
BAT ERE!



MESEDEZ!
EE ZAITEZ PARR
HORRELA!

GAINERA,
ZERGAK HERRI-
TARREN BIZITZEA
HOBETZEKO
DIRA.



BAI ZERA!
HERRITARREN
BIZITZEA...

ZEUOK BEZALAKO
LAU ALPERRENA!



LAU
ALPER
GARELA E?

EZETZ
ESAN
BERRIRO!

EL JUEVES-etik hartua

ANAITASUNA LEHENENGO BERTSO-PAPEREN LEHIAKETA

Bertso berri hauek diotenez, zeuden. Baina ate ostean edo ate gi-
«Urri huntako bederatzian», Xabier belean abisu hau idatzia zen, aurre-
Amurizak EGINeko Arrano Beltzean tik hala hitzeginak baitzeuden:
artikulu xeble bat idatzi zuen. Ga- «Ganbera irekia duzu». Goizaldeko
razi eskualdeko Gamarte herrian ordu bietan, Arrano Beltzak goiko
gertatu omen zitzaionaz. Han «gan- trastelekua ulertu zuen eta hura
bara» edo «ganbera» lo egiteko gela- trantzeta. Gai hori zela bide, artikulu
ri esaten diote. Bizkaian, ordea, bat idatzi zuen EGINen. Etxe hartat-
etxearen gorengo lekuari. Artoak, ko Mikel Berroko gizon gazteak, or-
patatak eta etxeko trasteak gorde- dea, beste bertsio bat eman zuen
tzeko lekuari. bertsoz. Bertso horiek oraintxe es-
kuratu ditugu. Iazko urrian gerta-
tuari buruz badira ere, merezi dute

Gau batez Arrano Beltza etxe har- argitaratzea:
tara heldu omen zen eta etxekoak lo

- 1) Arrano Beltzak kondatu dauku EGIN irakurgai huntan gertatu zakon nahigabea, Gamarteko eskualdetan. Nola ganbara battoren bila ibili zen debaldetan hori ahanzi duketenek har egunkaria eskutan urri huntako bederatzian azkeneko hostoetan.
- 2) Arrano Beltzak erran duena ez da egia osoa hau zer zitaken publikatzerat denen aitzinerat noa. Nere etxean baitzen pausatu arrats hortan arranoa horrengatikan badakit ongi ta garbi daukat gogoa zori tzar horren harrabotsekin guti baiginduen loa.
- 3) Arrano horri errana nakon zer zen guretzat ganbara «gela» zela ta ez zadin joan gaineko pisuetara. Baina gaizoak ez nau sinetsi egin du bere gogora zeren ondotik ibili den hor gure etxe barnean gora ahalgeturik aitortu zaukun biharamunean berak.
- 4) Jakina zuen banuela nik arreba hogoi urteko Arrano hoiek indarra beti egiten haragitako. Oinetakoak kendu zituen iñorrek ez entzuteko ta abiatu ixil ixila gainean den pisurako pentsatzen zuen memento on bat zuela han pasatuko.
- 5) Haratekoa ongi joan zen gero nekeago baitzen argirik gabe atxeman behar arrebaren gela non zen. Hasi zen lehen ikasi otoitz guzien errepikatzen memento batez gela bateko ate ondora da heltzen ideki behar zuenez ala hasi zen, bada, dudatzen.
- 6) «Noren gela hau izan laiteke? neronek ere nabaki! Ikustekotan atetzar hōri zabaldu behar polliki». Bainan ateak, idekitzean, nigar egin zun ederki bet betan barnen argia piztu ama baitzagon han naski gure arrano gaizoa zagon mututurikan trixteki.
- 7) Zoritxar hortan arranoa ez zauku agertu abila bere gelara lo egitera joan zen umil umila. Debaldetan han ibili baitzen gaizoa loaren bila goizean goizik etxera joan zen iduri kasikan hila bere buruaz oraino ere harriturik badabila.
- 8) Hara egia, irakurlea, Gamarten zer den gertatu zertako ote, arrano beltzak ez dauku dena aitortu? Ez zuen nahi bere andrea gauz hortaz zadin ohartu ezen arrano horrek berriki andreño bat baitu hartu gaurko mendean arranoak ere dira ezkontzari lotu.
- 9) Erran nahiak erranak dituk huna ene azken hitza: geroan ere Iparraldean zure lanez bazabiltza pasa zaitezke Gamarten gaindi gaiten elgarrekin mintza ongi etorri beti izanen duzu zuk, Arrano Beltza arrano batek beti berekin baitu Libertate Hatsa.

FEDEA ETA

KULTURA

ANAITASUNA aldizkaria pauso berri bat ematen hasia dago, honez gero ohartzen hasia zaudenez; eta berrikuntza lan honen barnean sail berri bat ere sartzen da: erlijioari buruzkoa, atal buruan irakurri ahal izan duzunez.

Sail berri bat diot, baina... benetan berria ote? Behar bada gaur egun oso gogoko zaigun iturburuetara jotze bat gehiago esango nuke nik, hasera batetan ANAITASUNA aldizkaria zer izan zen ohartzen bagara, behintzat.

Baina, kontuz, ez goaz ANAITASUNAREN aldi berri honetan lehenago izandakoetara bihurtzera. Esan nahi dudana hau da: lehen, garai batean erlijio gaiek beren leku berezi eta nagusia izan bazuten aldizkari honetan, oraingo honetan ez dute, noski, leku nagusi bat hartuko, baina bai leku berezi bat; hitz honekin beste gaitetik apartekoa izango duela ulertzen badugu. Esan bezala, beraz, iturburuetara bihurtze baten aurrean gaude eta, bide batez, pauso berri baten aurrean ere bai; eta ez inolaz ere atzera pauso baten aurrean. Eta, noski, ez dut inolaz ere esan nahi lehenagoko garaiak hobek ala okerragoak zirenik.

Honela, bada, urrats berri honen barnean sail «berri» bat azaltzen da... besterik gabe.

Ohartzen naiz hasera guztien aurrean izan ohi den bezala, halako kuriositate piska bat izango duzula eta, agian, galdera pilla bat zure buruan atal honi buruz. Eta denen artean, galdera nagusia: zergatik atal hau ANAITASUNAREN barnean? Erantzuna ere oso erraza da: erlijioa ere hor dugulako gure herriaren eta, hor ez ezik, munduaren barnean, gure mundu honi nortasuna ematen dion zer berezietako bat bezala. Besterik gabe, giza alderdi notiziagai honek bere lekua merezi

duelakoan gurea bezalako aldizkari honetan, hemen datorkizu, beraz, honoko sail hau.

Gainditu beharrezko zenbait arrisku

Nondik eta nora abiatuko ote den badiozu, benetan zaila gaur eta hemen geroari buruz hitzematea edo zer harik erabiliko dituen orri hauek ezagutzea, edo zer haize boladak norabait eramango ote gaituen guztiok asmatzea.

Halaz ere, ez pentsa erantzukizunik ezaren hegaletan edo eta inprobisazioaren patxada ederrean joango denik eta gutxiago, oraindik, txaketeroen eta oportunisten hildotik abiatuko zaigunik sail hau.

Ez lukete orriok ez ete inolako edo inoren katedra bihurtu nahi. Eta bat edo bestegatik nola edo halako zalantzak badituzu orriongana, ea ale batetik bestera asmatzen dugun denon artean zalantza horiek uxatzen. Ahaleginak ez egiteagatik ez da, behintzat, geldituko.

Era berean ez dute orriok polemikaren edo ta intransijentziaren bideetatik abiatzeko asmorik. Oxpina eta abots garratzak ugaltzen direnean hemen higituko den gai honetan, seinale nahiko garbia ez dela erlijioa giza galderen irtenbide bezala bizitzen, besteen aurkako arma bezala baino. Eta hori bai behin eta betiko baztertu beharko litzatekela gure artetik: erlijio giza bilaketaren lekuko eta adierazgarri izan beharrean, elkarren sakabanaketako horma bihurtzea.

Aurrekoa oraindik gehiago zehaztuz, ez al zaigu, hain zuzen ere, horixe gertatzen irakaskuntzaren aurrean? Zuzenago oraindik: elkar argitze lan baino ez al da sakabanaketa eta eztabaida bide bilakatu erlijio irakaskuntzaren gaia dela-eta Euskal Herriko obispoek esandakoa? edo eta ikastetxe bat edo bestean

erlijioari buruzko ikasketak zeharo zokoratu direnean, ikasleen gurasoen alderantzizko eritzia arbuatuz, gainera? Era berean, ez al dira horixe bera bihurtzen hainbat eta hainbat guraso elkarteren bilera, gai hau erabakitzen hasten direnean? Eta zer esan irakaskuntza hori jasotzen duten gure gazteen jarreraz?

Gauza asko ari da jokatzeko herri honetan geroari begira inor bere hesparruan ateak hertsirik eta dialektikazko armaz defentsarako prest geratzeko, soilki. Alderantziz, ba dago, bai, zer hitzegina gu guztion artean eta patxadan eserita, zertan elkar entzun beharra gai honetan. Nik neronek jatorrago deritotzot jarrera honi.

Sail honen urratsak

Hasera haseratik esan da hementxe bertan ezinezko dela sail honen bidea pausoz pauso oraintxe bertatik azaltzea, baina, hori bai, argi laga beharra dago orri honek zer izan beharko lukeen, nondik abiatu beharko lukeen.

Hau azaltzeko, gainera, zertxobait erraztu dugula bidea uste dut orainarteko lerroetan. Errazago elkar ulertuko dugulakoan nago, beraz.

Lehendabizikoz, Euskal Herriari begira, bereziki, joango zaizkizu ekinaldiok: Euskal Herriko erlijio giro, berri nagusi, eritzi... Zer esanik ere dago Euskadiko egoerarekin loturiko kanpoko arazoek ere eduki ahal izango dutela heuren oihartzuna, eta, era berdinean, baita internazional mailako erlijioari buruzko gertakizun, urrats berri, notizia, komentario eta abarrek ere.

Hau izango bada ihardunaldion hesparrua, bihoazkizu beste hitz bi sail honen barne giroa ere zertxobait azaltzeko.

ANAITASUNAK HARPIDEDUNEI

Irakurlearen erneagarri ez, lagun-
garri baino izan nahi luke; erlijio ez-
tabaida guztien polemikarako foru
baino, gure artean sor daitezken eri-
tzien mahai inguru gehiago. Gaur
egun gure gizarteak planteaturik di-
tuen zenbait arazotarako erizpide
batzu eskaini nahi lirateke hemen,
horiek beroietaz solastu, eman izan
diren irtenbideak agertu, bilaketa
edo entsegu moduan han eta he-
men agertzen diren berriak azaldu
eta ezagutarazi kritikoki.

Ez dira ez eta ahaztuak gelgituko
orriotan gure gaztediaren erdia, ba-
teze ere, era berezi batetan somatzen
diren bizikera eta esperientzia ber-
riak, nonahi somatzen diren erlijio
antzeko sinbologia eta hizkuntza
berriak, han hemenka nabari den
ohizko erakundeenganako mesfi-
dantza eta bapatean sortzen ari di-
ren nolabaiteko erlijio kutsuzko tal-
deak (guztiak atzerrian sortuak ba-
dira ere, gure herrian ere aurkitu ge-
nitzake dagoeneko eta gure herrie-
tako gazteak ere ikusi genitzake tal-
de horietan).

Leku berezi bat izando du baita
irakaskuntzako alor zabalak ere. De-
mokrakia bidetan hasi besterik egin
ez duen gizarteak eta estatuak ba-
dute zer pentsa birritan, erabakiak
hartu aurretik. Eta, egia esan, nahi-
ko zalantza ba dut ez ote den Madril-
go gobernua, batez ere, partxeo hu-
tsezko lanetan ari arazo honetan,
edo -okerrago oraindik- presio in-
darraren bultzaden arabera erabakiak
hartzten ari...

Ez dut uste, beraz, alferrikako
gertatuko zaigunik gainontzeko
aleetan aztertu eta argitu litekena
lerroon bidez.

Hauek lirateke orain, zugana aur-
kezterakoan, aldizkariaren sail ho-
netarako mahai gainean dauden as-
moak. Atsegin ditzazula da guzior
nahia.

Ba... hauxe zen, gaurkoz, adierazi
nahi nizuna: zer izango diren gutxi
gora behera lerrook, nondik nora
abiatuko diren. Ez dakit hasera ba-
tetan baino argi gehiago izango ote
duzun. Dena den zehaztasun eta
argi gehiago egingo duzulakoan ile-
roko elkar aurkitze honetan, hemen
izango duzu erlijioari buruzko atal
hau.

ESTEBAN J. AGIRRE



Azken alean aipatzen genizuenez
behar beharrezkoa dugu zuen helbide al-
daketen informazio zehatza eskuratzea,
eta horregatik berriz ezkatu behar di-
zuegu, helbideaz aldatzen baduzue, bi-
daltzeko, mesedez, helbide berria lehen
bait lehen eta honekin batera azken erre-
bistan izan duzuen harpide-zenbakia, IB-
Man egin behar ditugun aldaketak erreza-
goak izan daitezten.

Egia esan, batzuk izaten dira buelta-
tzen diren aldizkariak, zuen etxeetara hel-
durik gabe eta postariaren holako es-
kuizkribuaz: "desconocido".

**Eskabidea haxe da: zure etxebizit-
za beste nonbait jartzen baldin badu-
zu bidali zuzenbide berria azken eti-
ketarekin eta zure etxebizitza toki ber-
berean baldin badago, baina kalearen
izena aldatu edo eta euskaratu egin
baldin badute egin ezazu berdin.**

Helbideei buruz zera adierazi nahi di-
zuegu:

- Ez jar, otoi, zuri gustatuko litzaizu-
keen izena, ofizialki onarturik ez badago.**
- Ez euskaratu zure kontura** erdaraz
soilik agertzen den kalearen izena. vg:
"Calle Correo" "Posta Kalea".
- Euskaraz ipin daitezkeen izen ba-
karrak ofizialki onartuta daudenak** di-
ra. Eta hemen, jakina, EUSKARAZ ba-
karrak jar itzazu.


En tout cas il faudrait prendre soin au
recommandations suivantes:

- Ne mettez jamais d'autre adresse que
celle officiellement reconnue et admise par
l'administration postale. N'oubliez pas d'y
ajouter votre code départemental.
- Ne traduisez pas à vos risques des
noms affichés seulement en français ou
encore les substituer par d'autres pur e
simplement inexistantes. Ex: "Av. d'Es-
pagne" par Hegoaldeko etorbidea.
- Mettez toujours en euskara tout nom
officiellement reconnu ainsi.

Sobre las direcciones ten en cuenta
que:

- Solamente se puede recibir la re-
vista si la dirección es la oficial, por lo
tanto no pongas el nombre que a tí te
gustaría si no es oficial.**
- No traduzcas por tu cuenta e
nombre de la calle si este solo aparece
en castellano oficialmente. vg: "Calle
Correo" "Posta Kalea".**
- Los nombres que únicamente se
pueden poner en Euskara son los que
estén oficialmente aprobados. Y en
estos casos, claro, pon únicamente el
nombre en EUSKARA.

ZUZENDARITZAK.



ITOIZ GRABATZEN

«Ezekiel» diskoa kaleratu zenetik ia urte pare bat iragan da eta laster izango dugu Itoiz taldearen hirugarren disko nagusia entzuteko aukera.

Bigarren disko hau atera ondoren taldeak zinta bat grabatu zuen, bi edo hiru kantuk osaturiko zinta, eta Euskal Herriko irratietara zabaldu zena. Bazirudien hurrengo diskoa bide horretatik —musika aldetik— abiatuko zela, baina ez da horrela izango. **Ez, hurrengo diskoak beste etapa batetan sartzen gaitu. Ez du zinta honekin zerikusirik**» zioen Juan Carlosek.

holakorik egin, baina beharrezko ikusten dugu egitea». Hortik aurrera diskoa ELKARen eskuetan geratuko.

«Diskoa ez da monografikoa izango, hau da gai bati mugatua, aurreko diskoaren antzera —dio Garatek— besteak askoz sinfonikoagoak izan dira eta honetan beste musika mota batzu sartuko ditugu, garregungo musikarekin erlazionaturik daudenak». Jende berriaren gaia ere argitu digu Garate ondarrutarrak. **«Grabaketarako jende berria bilatu behar genuen. Alde batetik batera bat eta azkenean Anjel Celadak lagunduko gaitu. Saxoari inportantzi gehiago eman behar zitzaiola ikus-**

ITOIZ

Hirugarren diskoari ekingo diote orain eta otsailaren 6an sartu da taldea Galdakaoko estudioetan, Phocasen erreinuan. **«Gai guztiak prest daukagu, orain estudioetan sartu eta aukeraketa egitea falta zaigu —diosku Jose Garatek— daukagun 13 gaien artean zortziren bat edo aukeratu beharko ditugu. Letrak eta musika Juan Carlosenak dira, letra bat edo bi izan ezik, Joseba Alcalde-renak direnak, aurreko diskoetan ere parte hartu duena**».

Grabaketa Galdakaoko estudioetan egiten dihardute, baina edizioa ELKARen eskutik izango da. Honekin beste talde bat galtzen du XOXOAK, hasieran dirurik gehien eman zion taldea alegia. Eta ez da bakarra, Oskorrik ere aldegin du eta beste zenbaitek, Txomin Artolak esaterako.

Nahasketak Madrilen egingo dituzte **«Hau beste esperientzia bat litzateke guretzat. Guk ez dugu inoiz**

ten genuenez saxoa sartu dugu eta German ORs-ek hiru motako saxoak joko lituzke. Sartu dugu baita ere gitarrista berri bat, Aritza taldearekin herriz herri berbenetan zebilena».

Anjel Celada Euskal Herrian gaur dugun bateriarik onena izango da, «Fausto» eta «Orquesta de Mondragón» taldeetan egona eta Erruperrren diskoan erritmoa nolabait markatzen zuena. Gaurregun zenbait talderen laguntzaile bihurtu da, erderazko «músico de estudio» edo disko grabazioetan. Ba du Anjelek gainera bere taldea, jazz musika eremuan mugitzen den hirukotea.

Diskoaren izena oraindik erabaki barik dago baina posible litzateke **Elkolea** izatea. Zergatik? Taldea hasi zenean taldekoak Ondarroan edo Motrikun bizi ziren, gaur ordea Bilbo edo Bilbo inguruetan eta aldatze hori adierazteko «Elkolea» izena erabiltzen dute, Motriku mugan da goen etxe bat.

OSKORRIren

«Adio Kattalin»

«Martxorako kaleratzea litzateke gure asmoa baina ez dakit epe hori beteko dugun zeren orain diskotxeekin hitz egiten hasi gara eta horrek erabat luzatu egingo luke diskoaren kaleratzea». Honela mintzo da Natxo beren disko berriaz hitz egiterakoan.

Oskorri taldearen disko berria iadanik grabatuta dago. Grabaketa Galdakaoko estudioetan izan da, Phocasen laguntzaz.

«Diskoa zertaz doan esatea zaila da. Nik neuk nahiago nuke zuek entzutea, disko bat zer den hitzez esatea ez da erreza, neretzat behintzat. Nik uste —diosku Natxok— askozaz apainagoa, densoa dela, behar bada konplikatua».

Letrak gehienak herrikiokak dira. Amurizarenak eta taldearenak berarenak salbu eta musikari dagokionez perkusioari inportantzi gehiago ematen zaio.

«Grabaketa Galdakako estudioetan egin dugu guk ordainduz, eta orain diskoetxeekin hasi gara nahasketak egiten ditugun bitartean. Ez dakigu oraindik ze etxekin aterako dugun diskoa baina XOXOarekin ez». Jakin izan dugunez ELKAREk hartuko omen du diskoaren edizioa.

Partaideen aldetik Natxoren diskoan agertzen ziren berek hartu dute parte. Eta nobedade bat, perkusioan Errobin zegoen Benat Amorenaren laguntza izan dute disko grabatzerakoan.



«Guretzat nahiko ondo geratu da eta entzutea ez dela erreza ikusten dugu. Behar bada aurrekoekin konparatuz konplikatua delako eta honek esfuertu gehitxoago eskatzen du. Baina gu gustora gaude».

**ZARAMA taldearen
lehen disko txikia**



Otsailaren hasieran kaleratzeko da ZARAMA taldearen disko txiki bat. Diskoa Galdakaoko estudioetan grabatu eta CBS-ek kaleratuko du. Lehen aldean Nahiko eta bigarrean Ezkerraldea gaiak sartuko dituzte. Hasieran RCA proposatu zieten diskoaren kaleratzea baina honek letren itzulpenak eskatu eta «politika eta erotismoa» gehiegi aipatzen zirelakoan edo ezetza eman.

Taldea Santurtzin sortu zen, 1977 urtean: Ernesto Alava, bateria; Roberto Moso, kantaria; Xabier Alvarez, baxoa; Jesus Manuel «Txuzos» Alonso, kitarra. «Euskal Musika 80 (Mandiope)» diskoan «Bildur naiz» abestia sartu zuten.

**Trikitixa disko berria:
Miren eta Bingen**

IZ diskoetxeak argitaraturik disko berri bat, Miren Etxaniz eta Bingen Zubiria gazteek grabatu dutena. Gazte bikote hau, Hernanikoa, Zarauzko gazteentzako trikitixa lehiaketan irabazle atera zen.

Grabazioa eta nahasketak IZren estudioetan egin dira eta industri lana Barzelonan. Diskoa herri gaiek eta Pepe Jantziren gai batzuk osatzen dute. Gogoratuko duzue bikote hau Mandiopeko lehiaketaren diskoan agertzen zen, Bingen kitarra eta ahotsa eta Miren akordeoia eta organoa. «Azkenaldi honetan, talde lana utzi eta trikitixa jotzeko prestatzen ari dira» irakurtzen dugu Mandiopeko diskoan.

**Xabier Lasa eta Amaia
lan berria**

Agian laster kaleratuko da Xabier Lasa eta Amaia lan berria. Imanol Uriberen «Segoviako ihesa» pelikularako egindako musika hain zuzen. Disko hau argitaratzeko jen-

deak pelikulari ematen dion erantzunaren zai egon dira eta harrera ona izan delakoan orain musikari dagokiona entzungo dugu disko nagusi batetan. Dakizuenez Amaia eta Xabier Haizea taldekoak izan ziren Txomin Artolaren aldiaren eta Txominen ondoren baina handik eta lasterrera taldea uztea erabaki zuten biok. Beno, egia esan, Amaiak Txominek baino lehenago utzi zuen taldea baina taldekoek deiturik bigarren diskoan ere hartu zuen parte.

Gaur haizea taldeaz ditugun azken berriak hauexek dira: Gabriel Barrenak aurrera jarraitzen du beste Amaia batekin, Amaia Casasola, hemengo Amaiarekin zerikusirik ez duena.

**BILBOKO ALIRONen ALIRON
edo BILBOKO BILBAINADAK**

Aliron



«Aliron Bilboko talde bat da, Bilboko giro musikala alaitzeko asmoz batutako zazpi lagun». XOXOA diskoetxearen esku datorkigu disko berri hau. Erdaraz, Bilboko bilbainadak (sic) baina «erabat berrituak» eskeintzen dizkiguna. Taldearen partaideak ez dira berriak.

● Fernando Beti Fernandez. Bausaurikoa, bateria. **Reacción, Miguel Angel (Koldo) eta Pop Tops** taldeetako izan dena.

● Jose Antonio Torrontegi Arribas. Plentziakoa. **Gernika eta Enbor** taldeetako bateria. Hemen perkusioa eta ahotsak.

● Claudio Montero Rufino. Granadakoa, ahotsa eta kitarrak. **Formas eta Reacción.**

● Oscar Matía Sorozabal. Bilboko, perkusioa eta ahotsak. **Mitos, Sergio y Estibalitz eta Bilbao Band.**

● Jacinto Oñate Iseñ. Bilboko, kitarra eta ahotsak. **Belak 67, Quinta Reserva, Sergio y Estibalitz eta Bilbao Band.**

● Juan Carlos Gutierrez Alonso. Bilboko, perkusioa eta ahots nagusia. **Belak 67 eta Quinta Reserva.**

● Juan Humenez Bedman. Amurriokoa, organoa. **Tinglao eta Estrellas de los 40.**

«Gehien gustatzen zaizkigunak saltsa eta rock musikak dira, baina herri gaiak sakonki maite ditugunez **Bilboko bi harturik rock tankerara egokitu eta jendeurrean kantatzea erabaki genuen. Jende gazteak hori pozik onartzen zuela ikusirik bide horretatik abiatu gara.** Taldea gaurregun dantzaleku eta jaietan jotzera dedikatzen da.

Baina ez gara gehiago luzatuko, ez dut uste merezi duenik ere. Gaiak oso ezagunak dira «Beber beber; Un inglés vino a Bilbao; El aldeano tiró la piedra...»; «Kontura gaitzen 1982. urtean bizi garela eta «LOS CHIMBEROS» eta antzeko taldeen aldia atzean geratu zela. Horrela uste nuen nik behintzat. Musikan ere atzerakadak izaten ditugu. Hainbat urte jotzen honetarako? Pauso bat atzera, bilbainadak. Romantiko berriak ote? Edo KARROZZAK?



**IZ diskoetxearen
urteko balantzea**

Urteko balantzea egin du IZ donostiar diskoetxeak, joandako urteko balantzea berari dagokionez. Balantze hori gure eskuetara heldu erazi du eta berehala ematen dugu argitara. Gure atek etxe eta kantari guztientzat daude zabalik eta gure asmoa atek beti zabalik uztea da. Beraz ia hurrengorako animatzen zaren.

Balantzeaz jarraiturik IZ-ak bere produkzio nolabait sailkatzearen 8 ataletan sartu ditu diskoak. Euskal Musika Berria deritzanean 3 disko atera zituen iaz; Jazz delakoan 5; Rock sailean beste 3; musika tradizionalen ordea bat eta Haur didaktikoa deituan beste horrenbeste. Guztira 21 disko. Hain txikia den etxe batentzat ez da uzta txarra.

1. ROCK IZ.

- IZ-144 Magdalena
- IZ-146 Zen
- BTK-8 Mogollón-U.H.F., SHANTI RECORDSekin batera

2. HERRIKO IZ.

- IZ-133 IV Concurso de la Jota Navarra
- IZ-136 Fanfare «Kilikilariak»
- Fanfare Muthiko Alaiak
- IZ-139 Maltzeta aita-alabak
- IZ-141 Laja eta Landakanda
- IZ-148 Mugartegi bertsolaria
- IZ-149 ...Porque llegaron las fiestas
- Antzuolako mairua

3. EUSKAL MUSIKA BERRIA.

- IZ-135 Etxahun eta Etxahun
- IZ-140 Euskal Musika 80
- BTK-5-6 Nuklearrak? Ez, eskerrik asko

4. JAZZ-IZ.

- IZ-137 Eiderjazz
- IZ-142 Big-Band Pamplona
- IZ-143 Alen

- IZ-150 Jean Luc Barbier Quartet
- XVI Festival de Jazz de San Sebastián

5. MUSIKA TRADIZIONALA

- IZ-145 X Certamen Canción y Polifonía vascas

6. HAUR DIDAKTIKOA.

- BTK-7 Txalo pin txalo 2

LASTER EUSKAL HERRIAN


- **Luis Llach** Euskal Herrira. Otsailen
- Donostian 25ean, arratsaldeko 8etan Astoria zineman
- Buenos Aires zineman
- Durangon 27an ordu berean Astarloan
- Gasteizen 28an, 8etan Mendizorroza Porikiroldegian

- **Magna Carta** Inghaterrako folk taldea Bilbon, otsailaren 14an Deustuko Salesianos en ikastetxean.



Mikel Laboa ez dio kantatzeari utzi-ko

JAIEGIN batetan Mikel Laboak kantatzeari utzi egingo ziola irakurri genuen eta Mikelek berak argitu digunez ez da egia, berak ez baitu holakorik esan: «**kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi...**».



DON NEMESIO ETXANIZEN BOLEROAK ETA TXA TXA TXA

«Don Nemesio Etxaniz heriotzarekin kulturaren epe bat amaitzen da» jarri zuen titulutzat DEIAko kazetariak. «Nemesio Etxaniz bi jenerazioen arteko zubitzakoa egiten saiatu zen» zioen EGINekoak bere artikuluxkan. Baina gaurko gazteok jakin ere ez dakigu Nemesio Etxaniz nor zen eta Euskal Kanta Berriaren hasieretan izan zuen influentzia.

Baina orduko gazteek bai jakingo dutela, gaurregungo karrozkek ez dituzte ahaztu «Antoni eta Anton», «Ardo gorri naparra», «Pandero zaharra» eta, behar bada ezagunena «Txa txa txa».

«Ez da ahaztu behar —dio Gorka Knör kantariak— Nemesio Etxanizek eduki zuen garrantzia. 1951. urtean «Kanta kantari» kantutegia argitaratu zuen. Oilar goiztarra benetan». Eta Euskal Kanta Berriaren historiak jarraitzen du «Beharbada, bere kantutegia argitaratu zuenean ez zuen Etxanizek bere kreatibitateak merezi zuen erantzunik jaso, baina horren lana ez zen alferrikakoa gertatu, handik urte batzutura beste batzuk hartu bait zioten segi-

da haren ideari» (Gorka Knör, «Euskal Kanta Berriaren historiak, JAKIN, 4. zenbakian).

Nemesio EZ DOK AMAIRUren hasieretan izan zen eta gero, beste asko bezalaxe, eta taldea konpromisu bat betetzen hasi zenean, atzean geratu zen. Taldearen hasieretan izan zuen influentzia jakiteko Benito Lertxundirengana jo dugu.

«**Hasiera-hasieran ezagutu nuen, Donostiako etxe batetan egiten genituen gure bilerak eta lehen aldiz joan nintzenez buruzuridun apaiz bat ikusi nuen eta galdetu ia nor zen. Nemesio Etxaniz zela erantzun zidaten. Orduantxe ezagutu nuen**» Nemesioren lana aipatzen digu Benitok «**Hasiran beti kolaboratzen zuen, EZ DOK AMAIRUren lehen aktuzioetan ere hartu zuen parte. Heltzen zen eszenariora eta bere boleroak eta txa txa txa famatuak kantatzeari ekiten zion.**»

«Nemesiok bere teoriak zeuzkan. Beti izan zuen argi kantatu modernoaren beharra, euskaraz kantatu mo-

dernoak ere kantatu behar zirela. Kanpoko musika entzunik ea zergatik ez gauza bera euskaraz egitea galdetzen zion bere buruari. Eta txa txa txa eta boleroak kantatzen hasi zen».

Euskal Kanta Berria deritzon mugimenduaren historia ezagutzeko, hasierak behintzat, testigo aparta genuen eta DEIA irakurtzen dugunean «Euskal kanta berria aztertzerakoan Etxaniz aipatu gabe ezin gertuko da inor».

Amaitzeko Nemesioren beraren hitz batzu ekarriko ditugu, OH! EUZKADI aldizkariaren lehen zenbakian Nemesio Etxanizekiko elkarrizketatik hartuak:

«—Nik uste dut ez naizela musikazale izan; uste dut musika nerezat euskarari laguntzeko tresna bat besterik ez zela, bide bat. Leader eta kanta motxak eta gustatzen zaizkidak, orain ez neri esan novena sinfonia...»

JOXE UGARRIZA

NI TEKNIKOA NAIZ

Frankismo osteko demokrazia ez da sekula izan Euskal Herrian, entusiasmo handiaz onartua, nahiz eta ahalegin handiak egin dituzten talde batzuk, herriak onar dezan.

Lehengotatik jadanik jende mordo handi batek ez zuen demokrazia horretan sinetsi, konbentziturik bait zegoen lehengo zapalketaren jarraipena zela; baina denbora pasatuz joan den neurrian, etsituen mordera ere haziz joan da.

Espainiako Demokrasiak eta bere morroi den Gasteizko Gobernuak —Eusko Gobernu flamentak— ez dute lortu, jende berria demokrazia zale egiterik; lortu dute, ostera, hasieratik demokraziaren aldeko zen hainbat jendek amore ematea eta sinisimea galtzea.

Gaur daukagun demokrazia honen alde, gogor jokatu dute bi talde handik behintzat: erreformaren aldeko politikoen taldeak eta erakunde autonomikoen inguruan mugitu den Teknikoen taldeak.

Erreformaren aldeko politikokoak argi eta garbi agertu dira beti Erakunde Autonomoen alde ere. Maltzurkeriarik ez da egon gai honetan.

Teknikoen taldearen jokabidea, ostera, nahikoa desberdina izan da. Tekniko asko erreformata honek sortutako erakundeen aldekoa konbentzimenduz izan da ete bere lana aportatu du tingladoaren eraikitzean. Beste asko, ostera, erakunde auto-



moetaz probetxatuz, bere karrera pertsonala egitera joan da bereziki. Hauek ere, tingladoa eraikitzerakoan, laguntza izan dira, eta sarri laguntza paregabea, lana aportatuz gainera, entusiasmo izugarria eta sinismen bizia Erakundeetan agertu bait dituzte hainbat bider.

Baina, dirudienez, hartu duten aukera gutxi neurtua eta gaizki aztertua izan da, eta konturatuz doaz, beharbada gehiegi agertu dutela musturra tingladoaren alde, Gasteizko Gobernuaren inguruan mugitzen diren batzu ari bait dira dagoeneko esaten, beraiek teknikoak direla soilki eta ez politikoak.

Antza dagoenez, ez dute garbi ikusten Gasteizko Gobernuaren etorkizuna eta, okerrago dena, herriaren aurrean gaizki ikusiak izango direla uste dute, prestijioa galduko dutela. Izan ere, karrera egin nahi duen tekniko batentzat, herriaren aurrean prestijioa galtzea oker handia litzateke. Hortik, orain, dirudienez, hainbat tokitan hauen ahotik entzun ahal izatea, beraiek teknikoak direla, hori esanik garbi eta pekatu gabe geratuko balira legez.

Ez dira konturatu, antza, komisarietan torturatzen dutenak ere teknikoak direla eta ahaztu egin dute, duela gutxi honako hau ere entzuten genuela: FOP-ekoak «Obreros del orden» direla alegia.

JULEN KALZADA

WAIDAREN ZINEMA: BURNIZKO BIDE BAT

Filme askok historian zentratu dute beren gaia. Batzuk, pertsona baten bizitza («La Reina Cristina de Suecia», «El asesinato de Trotski»), beste batzuk, ordea, herri baten one garrantzitsu bat adieraziz («La batalla de Argel»). Badira zenbait filme historiaren lekuko izatea erabaki dutenak, une historiko hori boterearen ikuspegitik edo dialektikaren bidez aztertuz («Después de», «Morir en Madrid», «El poder popular», «La espiral»). Oso zinemagile gutxik lortu dute Rosellinik bezain ederki beren fikzioa historian bihurtzea («Paisa», «Roma, citta aperta»).

Baina gehienek beren filmea une historiko hori igaro ondoren egin dute, urteen igarobideak erakusten dituen esperientzian eta ikuspegiari oinarrituz.

Oso gutxi izan dira historiaren gurdian igo direnak eta bide horren norabidea ezagutu gabe filme bat egin izan dutenak. Ene ustez, hau da Wajdaren azken filmearen bereiztasuna, Poloniako azken gertaeren baitan gelditu delako «El hombre de hierro»-ren mezuaren hatzematea. Filme hau ez da «El hombre de mármol» filmearen jarraipen soil bat, Solidaridad eratu duten pertsonen kantu bat ere baizik, lehengoan esan gabe gelditu zena, orain esateko dagoen ahalmena aprobetxatuz. Dena dela Wajdak jokatzeko arriskua handia zen (eta Historiak horrela erakutsi digu), inork ez bazekien non bukatuko litzatekeen Poloniako estatuaren apartoa eta Solidaridad-en arteko kontrajartzea. Giro lasai batetan, «El hombre de hierro» gaurko egoeraren erreportai kementsu bat izango litzateke, Polonian, Gdans-en bereziki, orain dela 10 urte gertatutakoaren indarra eta balioa ahaztu gabe (Berez, hemen bi filme ditugu). Baina historiaren hildoa ez da bat etorri langileen asmoekin, eta gertaera triste honek balio berezi bat (agian, zinematografikoki ez duena) emanten dio filme honi, betirako Poloniako gertaeren testigutza beharrezkoa bilakatu delako. Hemendik aurrera, ezin da Poloniako historia aztertu filme honen kontatu gabe. Filme honek, orain, ez du historia adierazten, bera da historia.

Baina nola iritsi da A. Wajda puntu honetara?



Zinemagile hau Suwalki-n jaio zen 1926 urtean. 13 urte zituen munduko bigarren guda hasi zenean, eta 16 urte zituelarik hasi zen Erresistentziarekin batera burrukatzen. Langile eta margolari bezala lan egin ondoren, Lodz-eko Eskola Zinematografikoan diplomatu zen, 1952. urtean. Alexander Ford-en laguntzaile bezala lan egin ondoren, 1954. urtean hasi zen bere lehen filmea egiten. Dena dela, eta aurrera jarraitu baino lehenago, Poloniako orduko une historikoa zentratzea komeni zaigu, arteari, eta zinemari konkretuki, dagokionez, bere lana hobe uler dezagun. Garbi utzi behar da alde batetik errealismo sozialista ez zela Errusiako bereistasun bat bakarrik izan. Boleslaw Michalek kritikoak, orduko egoera aztertuz, horrela zioen 1971. urtean:

«Sortaldean zinema begirune proktiko batetaz gogartua zen soil soilik. Bere helburua, horrela behintzat ulertua zegoen, ez zen giza estrategiaren beharrei erantzutea ere, orainaren taktikaren betebeharrak —aldakorrak bestalde— asebetetzea baizik. Erabilketa zorrotz honek ez zien zinemagileei ideologi eta giza prolematikan murgiltzen uzten». Berez, urte asko igaroko, dira eguneroko arazo errealak aztertzeke ahalmenaz gozatzeko. Bereiztasun hau ez zen aberri sozialistetan baka-

rrik gertatu, horretaz hemen ere asko dakigu, baina ez da hori gaurko gaia.

Giro honetan sortzen da Wajdaren lana, baina ez jokaera pertsonala bezala, ia ofizialki eratu zen talde batena baizik. Urte berdinean, hots, 1954. urtean, Wajda, Munk, Rosewicz eta Has filmeak egiten hasi ziren. Hauk izango lirateke Poloniako zinemaren bigarren belaunaldia osatuko zutenak, Alexander Ford eta Jerzy Kawalerowicz lehendik jarraitzen bazuten ere zinema egiten.

Hortik abiatuz, «Las señoritas de Wilko»-ren egilearen lana lau arlotan bana dezakegu: Lehenengoa: Gerlako belaunaldiaren heroismoa aztertzen duena, bide epiko bat jarraituz. («Generación», «Kanal», «Cenizas y diamantes»).

Bigarrena: Gaurko arazoak aztertzen dituen, edo behintzat, hurbiltzeagatik saiatzeko dena. («Los brujos inocentes», «El amor a los veinte años», «La caza de moscas», «El director de orquesta»).

Hirugarrena: Historiko eta Literatur produkzioa, Poloniako literaturaren lan nagusiak aurkeztuz: («Lady Macbeth en Siberia», «Las Bodas», «Las puertas del paraíso», «La tierra de la gran promesa», «El bosque de los abedules», «La línea de sombra»).

Pixkanaka-pixkanaka liburuxka berriak irtenez doaz «Ustela Saila» delakoan, dagoeneko 17.alea esku-ratu zaigularik oraingo honetan. Beronen izenpurua: «Txipiroiren bat edo beste» eta egilea Rafael Egiguren. Aurreko gehienetan bezalaxe, poesia agertzen da liburuxkan eta marrazki txiki edderrez hornitua, begien atsegingarri. Irakurri dudanean, nahiko xarmanturik geratu naiz, poesien irudizko munduxkak eta graziak hartaturik, eta izan dudan pena bakarra hain laburrak izatea izan da, hots, horrexen fite irakurraldia, burukreazioaldia, bukatzea.

Benetan buru-irudimem haundiz saiatu zaigu Rafa bere solasa, bere joko poetikoa gureganatuz. Lehengo pesian txalapartari hasten zaigu bere poesiazko txalaparta eder, malgukor, soinu anitzetakoan barneraziz:

«arnas hedatu batean
hire bihotzak emaro txalaparta
joka» (1)

ondoren guztiz bere baitaratzeko. Poesiok apalak dira, zintiak (berak ere «gizontasunaren negar zintia» diosku); mundua bera bezain «apalxeak», ostera, eguneroko gauzokin, mundu nahasi honetan garentxoarekin eta daukaguntxoarekin arras bestelako irudizko mundu bat sorterazen digu. Gauzak lurtzen dira, lurra gauzatzen; ideiak baratzean lantzen ditu, landareak ideiazko buru batetan erein, irudi ezin politagoak lortuz:

«Memoriaren liburutegi espiral-
letan» (13)

«Itsas estankatuenaren erdiko
uharte naufragoan bakar» (13)

«Udazken lehorreko behi go-
rrian,
sagardoz puztutako betizu hor-
dia» (43)

Batzutan ironiazko zipristinez ere bai:

«Hegazti berritsuak munduari:
«Este Sagrado Corazón de Je-
sús está riquísimo» (19)

Zinetantxe Rafak ongiro jakin izan du errealtatea eta irudia elkartrukutzen, alderatzen, topatzen, gauzatzen, batetan batzeraino.

«Klandestinitatearen txipiroi guz-
tien okaso nostalgikoa opa»-ka ari zaigu eta txipiroi galantak eskaini dizkigu, ez beltzixkak, ez, izarnia-
tsuak, distiratsuak. Ea hurrengo ba-
tez ere, arrainketan datorkigun. Hala biz, euskara txiroaren ederga-
rri, denon tripen goxagarri!

KARLOS SANTISTEBAN

TXIPIROIREN BAT EDO BESTE



Laugarrena: Nolabait, azterketa politiko bat lortu nahi duena: «El hombre de mármol», «Sin anestesia», «El director de orquesta» zenbait unetan eta «El hombre de hierro» azkenik.

Cannes-en urrezko saria lortu zuen filme hau lan politiko bat dugu. Hau badiogu, ez da gauza guztiak gai politikoak direlako, sistema politiko bati egiten zaion kritika bat suposatzen duelako baizik. (Sariek ere badute bere helburu politikoa, eta hasu honetan ez dago hain izkutatua). Baina kritika guztiak bezala, baditu honek ere bere zailtasunak.

«El hombre de mármol» filmean zinegile batek (Kristina Janda) Birkuten omenez irudi bat egin zutelako langile horren bizitza eta lana aztertu nahi zituen, nolabait gaurko poloniarrei gorde nahi izan zaien une historiko baten isla bat suposatzen bait zuten. Eta ikerketa hau elkarjoko da lehenengo unetik boterearen interesen kontra. «El hombre de hierro» filmean, ordea, botere horrek langile haren semearen bizitza ikertu nahi du, baina ez hori goratzeko, desegiteko baizik, horren bidez Solidaridad mugimendua izengabetuz. Helburu hauen arteko


ezberdintasun datza filme honen balioa gutxitzen duen bereiztasuna. Lehenenjoan K. Janda egia ezagutzeko bide bat besterik ez da. Bestean, berriz, badirudi Wajdak kazetari horri garrantzi gehiago ematen diola, agian pertsonaia hori erosteko wodka eta berebilaz baliatzen den boterea kritikatzeko. Hor filmeak bere indarra galtzen du, hori ez baita filmearen gaia. Bestalde «El hombre de mármol» ikusi dutenentzat bigarren filme honetan agertzen diren zenbait gertaera ez dira bat ere berriak, honetan «Sin anestesia»-ren egileak lehen zensurak ukatu zuen zenbait eszena desarrollatzeko ahalmenaz baliatu bait da.

Gainera moralismo kutsu bat botatzen du filme honek, bukaeran, kazetaria Solidaridad-eko ideiekin bat datorrenean, horrela dirudi behintzat, hauengatik baztertua izanena da, lehen egindako salketarengatik.

Gauza onak ere baditu Wajdaren filmeak, eta asko gainera. Pauso bat suposatu du Polonia bere historiaren sujeto izan dadin. Filmeak duen kritikagatik bakarrik epaitzen badugu lan hau, ene ustez Canneseoak erori ziren segadan eroriko gara gu ere. Gure baitan dago.

XABIER PORTUGAL

X. AMURIZAREN AZKEN BI LIBURUAK



AEK erakundeak argitaratu berria du, X. Amurizak azken urteotan bertsolaritzari buruz egiten diharduen azterketaren lehen fruitua. Denetara bi liburu dira «**Bertsolaritza 1 eta 2**» izen orokorrarekin eta «**Hitzaren Kirol nazionala**» eta «**Hiztegi errimatua**» izenburuekin.

1981.eko abenduaren hasieran Durangon ospaturiko euskal liburu eta diskoen azokan plazaratutako liburu hauek, ba dute mamirik mahiko, berei buruzko aparteko irazkina egiteko. Bestalde, azoka horretako salmenten neurriak zehazki ezagutzen ez ditudan arren, bertako saltzaile batzuekin hitz egin ondoren eta Mogelen Peru Albarkaren berragitalpena alde batetara utziz, seguru nago, euskarazko liburuen artean berak izan zirela «best sellers»-ak Hortik urrun ez ziren ibili behintzat, edozertara. Eta hori ez da gutxi edo, bestela esanda, zerbait bada!

Aztertzen diren gaiak

Nahiz eta bi liburutan egon, biotarikoa lehena bi zati nagusitan banaturik dago eta argi ikusten da, bi zati horiek bi liburu oso eta desberdin izateko gaitasun osoa dutela. Beraz, hiru liburu direla esan daiteke; eta Amurizak berak ere hiru liburu egiteko asmoa bide zeukan, horrela adierazirik geratzen baita lehenengo liburuko leku askotan, lapsus gisa nonbait.

Lehenengo zatian bertsolaritzari buruzko gogoeta interesgarria —eta

berria— egiten da. Metodo analitiko batez, orain arte analizatzeko ezintzat edo eduki den bertsolaritzaren ingurunea eta izaera aztertzen da, tartean elementu soziologikoen garrantzia agertzen delarik. Euskarak berak eskaintzen dituen zenbait ahalbideren azalpena ere egiten da, gaur eguneko bertsolaritzak jendarean agertzeko jantzen dituen itxuren (gaiak, gai-jartzaileak, saioak,

siak, bakoitzean bertsolariek kontziente edo inkontzienteki erabiltzen dituzten teknikak arakatu. Eta, garrantzikoa dena, sistematikoki sailkatuz.

Bigarren liburuan edo, gauza bera dena, hirugarren zatian, hiztegi oso bitxia agertzen da, atzekoz aurrera pentsaturikoa eta errimamoten arauera sailkatua: hiztegi errimatua.



txapelketak,...) azterketarekin bukatzeko.

Bigarren zatian bertsogintzaren arlo teknikoan azterketa sistematikoa egiten da. **Doinua, errima** eta **neurria** dira ikutzen diren arlo nagu-



Noiz eta nola prestatu dituen

Orain kolpera agertu diren lan hauk, urte luzetako buruausnarketa prestatuak izan dira. Oker ez banabil, hiztegi errimatuaren lehenengo prestaketa Zamorako gartzelan

—hain urrun ez dauden denbora haietan— eta bertako gartzelakideen laguntzaz eginga izan zen. Gero, azken urteotan osatua eta egokitua izan da.

Beste bi zatiak, nahiz eta lehenagotik ere nolabait pentsatuak izan dituen, azken bi urteotan idatziak izan dira eta hainbeste lekutan Xabierrek eman dituen hitzaldi eta ikastaroetan experimentatuak eta osatuak. Hitzaldietan lehenengo zatia landu du batez ere eta bigarrena, Euskal Herrian zehar antolatu dituen hainbat bertsolari-eskolan (Bilbon, Udako Euskal Unibertsitatean, Hernanin,...). Beraz, materiale hori alde aurretik experimentatua izan dela esan daiteke. Ez da, hortaz, garrantzia makala!

Eritzi Kirtiko laburra

Liburu hauekin bertsolariaren azterketan pauso edo salto koalitatiboa eman dela esaten badugu, ez dugu astakeria handiegirik esango, egitiaz hurbil dagoen zerbait baizik. Ikus dezagun laburki eta ikuspegi historiko pixka batez, arlo honetan orain arte egin dena.

Historian zehar, ba dira aipatu gabe utzi ezin daitezkeen izen batzu (garrantzizko diren beste batzu alde batetara utziko ditugu, larregi ez luzatzearen). Honela, ba, gerra-aurrean, Manuel Lekuonal eginiko lanak ematen dio hasiera azterketa honi. Eta ia-ia esan daiteke, teoriari dagokionez, puntu horretan gelditurik genbiltzala, azken txapelketararte behintzat. Gerra-ondoa A. Zabala dugu bertso-biltzaile eta biltzaile nagusia. Meritu handiko biltzaile honi esker, gaur egun materiale ugaria dugu kontsultatzeko eta erabiltzeko. Baina Zabala biltzaile da eta ez teknikaren arakatzailerik.

Tartean bestelako lan aipagarriak badago ere (Zeruko Argiako ale berezi hura, J. M. Lekuonaren eta A. Muniategiren lanak,...), aportazio berririk ez da egiten, azken txapelketaren ondoren kaleratutako Jakinen zenbaki berezitate. Baina zenbaki hori oso interesgarria izan arren, amankomuneko lan horretan ez zen, ene ustez, oraingo bezalako pauso koalitatiborik eman. Zela edo hala esateko, orain arte ez zen inor bertso-gintzaren ezkututasunean sartu, barneko teknikaren arrazoi-tzean eta sistematizazioan.

Horixe da prezeski, azken liburu hauetan eskaintzen dena: bertso-gintzaren sistematizazioa. Horregatik diot, pauso koalitatiboa eman dela. Alde horretatik, liburu histori-

koak direla esan behar.

Dena dela, sistematizazio hori ez da oraindik erabatekoa eta zenbait hutsune ere ageri direla esango dugu, etorriko diren bestelako lanetan osatzeko eta zuzentzeko modukoak noski. Ene ustez, motelen dagoen atala, doinuei buruzkoa da. Bertan adierazten den sailkapena ez da osoa eta, bestetik, pentagrama edo kaxete gabe, erren gelditzen da. Neurriari buruzko partea nahiko



osoa da, bertako puntu guztiak poliki landurik daudelarik. Gauza berbera esan daiteke hiztegi errimatuari buruz, berau ia-ia exhaustiboa delarik. Errimari dagokionez, errimaren teoriari dagokionez, alegia, bi puntu oso garrantzizko formulatzen dira. Lehena, errimaren arazoa antzekotasun fonetikoan finkatzea eta ez soilik letren berdintasunean; horrela kontsonante en taldeak definitzen dira (B-D-G-R, P-I-K eta abar). Bigarrena, errimaren aberastasunean errimadun hitzen maila gramatikalaren garrantzia azpimarratzea. Nire eritziz oso ekarpen balioitsuak dira biak.

Textuaren idazkera aldetik, oso argia da, Amurizak ohi duen bezala. «Prosa didaktikoz» edo idazten dela esan daiteke; eta hori eskertzekoa da, liburu horik literatura ez direla eta nortzuk erabiliko dituzten kontutan hartuz. Ohar gisa, zenbait hutsune ortografiko errepikatzen direla esango dugu: **zakon** z letraz, **garrantzia** azken a hori itsasia biltzen, eta abar. Letra-mota ere ez da guztiz argi ikustekoa eta batzutan nekagarri gertatzen da. Baina hutssegite txiki hauek ez diote batere meriturik kentzen aipaturiko idazkera didaktiko horri. Bistan da, Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak ongi asmatu duela liburuok argitaratzean.

Bertsolari-eskolen inguruko mugimendua

Liburu hauek eduki dezaketen eragina ulertzeko, azken urteotan eta bertsolari-eskola izen orokorren inguruan biltzen den mugimendua aipatu behar da. Eskola izenarekin, bertsozale-multzo bereziak adierazi nahi ditugu, bertso-gintzaren teknika eta bertso laritzaren historia aztertzeko erregulariki biltzen diren bertsozaleen multzoak alegia.

Duela hiru urtetatik hona hainbat lekutan antolatu dira horrelako eskolak: Santutxun, Bilbon, Durangon, Algortan, Mungian, Hernanin, Iruñean,... Hortaz aparte, ikastolen munduan ere bertsozale eta bertsolariak prestatzen ari dira, Aretxabaleta, Eskoriaza, Arrasate ingurukoak P. Goikolearen eskutik aitzindari Errekak ura darama, beraz.

Eskola horiek lanerako materialearen premia zeukaten. Teoria lantzeko, ariketak egiteko, historia ikasteko,... Azken urte honetan zerbait baino gehiago egin da horiei begira, Amurizaren bi liburu hauek baino lehenago J. Dorrontsoeren «**Bertsotan**» liburua agertu baitzen. Momentu honetan, hasteko behin-behinean, ba dute zerekin lan egin. Oinarrizko lan hauekin bertsolariak eta bertsozaleak pozik egon daitezke. Falta den gauza bakarra, horietan oinarriturik, aurrerantz egitea.

J. R. ETXEBARRIA



PROTOIEN ENERGIAREN KONTRA: POTROEN INDARRA (II)

Energiaren munduan bizi gara, baliabide edo errekurtsoen mende, jakina. Egun, «energetikoek» betetzen dute orain gutxi «politikoi» bakarrik zegokiena. Ikusi baino ez dago, norik agintzen duen benetakoa Euskal Herrian. Irakurri DEIA.

Oraindino «mugimenduan» bizi garenez, zenbat energia daukagun jakiteko ondoko formula hau aplikatu behar dugu:

$$\text{Energia} = 1/2 m v^2$$

«m» gorputzaren masa eta «v» berorren abiadura izanik. Ni fisikaria ez banaiz ere, zerbait argi ateratzen dut hortik: pertsona bat zenbat eta lodiago izan, energia gehiago atera dazakegu aldapaz behera bultzatuz gero. Ez da? Asike, zertarako Lemoiz? Hobe genduke pila bat jende hartu, ondo gizendu eta Gorbeiaz behera bota. Horrela itsasora helterakoan, mareen energia osagarria ere probetxa genezake. Gainera, ez dugu behar Iberduerok esaten duen hainbeste energia, berorrek eta berorren aldekoek inposatu nahi diguten bizimodua onartzen ez dugun bitartean. Eta hortan gaude. Oraindik kapaz gara hortzeskubilarri eskuz eragiteko.

* * * *

Fisika aprobazteko bi urte egon den edonor, gai da eguneroko berriak ikuspuntu energetiko batetik irakurtzeko. Hor dugu, kasuz, Polonia. Hangoa ulertzen saiatu arren, azkenean hemengo ere zalantzan daukat. Baina ba dago, egon, kezkatzen nauen arazoa. Aita Reagan-en administralgoak errusoei ezarritako zigorrak, zergatik ez zituzten beste nazioek onartu? Zigor horien artean gorriek teknologiarik ez pasatzea agertzen zen. Zertarako teknologia? Siberian gas ugari aurkitu zuten orain gutxi, munduko erretserbarik handiena hantxe omen da, eta gas hori erosteko gertu daude Frantzia, Alemania eta Italia. Milioi asko omen daude tratuan. Gaseoduktua ere hasiak ziren egiten, baina momentuz gelditu behar izan dute asuntua, erabiltzen zuten tresneria amerikanoei erosten baitzietan. Nonbait, amerikanoek probetxua ateratzen dute Poloniatik.



* * * *

Eta Polisarioa, zer? Batzu alde eta beste batzu kontra. Zer dela eta? Zein gobernuri interesatzen zaio saharatarren askatasuna? Zerbait egon behar da aldekeria eta kontra-keria horien atzetik. Eta nire eritzi apalean, baliabideen arazoa aurkitzen dugu hor ere, Saharan aurkitzen baita munduko fosfatolekurik garrantzikoena, eta horrez gainera plataforma zabal bat. Eta hau bai interesatzen zaiola askori!!! Baina fosfatoak lortzeko ba dago beste bide bat Hegoamerikako leku askotan egiten dena: pinguinoena, animalia hauen gorotzetan («guano» izenekoak) fosforo ugari agertzen baita. Hau horrela, alternatiba bat proposatu nahi nuke Euskal Herrian arrazionalki behar litekeen fosforoa eskuratzeko: lehenbizikoz, sanitatuko bati esan pinguinoen dietaz azterketa sakona egin dezala. Gero semental onak aurkitu, egokiro elikatu eta itxaron digestioa egin arte. Bestera erraza da, eta merkea gainera, Gobernuaren beka, noski!!!

* * * *

Arrantzaleena benetan arazo larria. 20 milla direla eta, guztiok izo-

ratzen. Baina berrehunenak ba dauka beste azalpen bat; izan ere, 200 milla horietan zabalitzen da ozeanoetako «plataforma» delakoa, eta jakintsuek diotenez hortxe aurkitzen da etorkizunerako jantokia: algetatik hasita eta petrolioraino. Adibide bikaina Bermio aurrean hilabete batzutan lanean egondako «Medusa» daukagu. Zer du aurkitu? Top Secret. Orduan arrantzaren atzetik beste zerbait dagoela pentsatu behar da, zerbait energetikoa, jakina. Eta hau ez dago arrantzaleen eskuetan, bestea ere ez.

Bizitzeko energia behar dugunez eta energia guztiak berdinak ez direnez, ezin ditugu denak onartu. Horrexegatik gaude nuklearraren aurka. Horrexegatik gaude nuklearraren aurka daudenen alde. Energia bizitzeko bada, ikas dezagun erabiltzen!!! Gauza guztiek ba daukate beren balantze energetikoa. Eguneroko balantze horiek errazionalak egiten, ba daukagu beharra eta lana.

Energia leku guztietatik. Energia, bost segundotan Zaragozako herri horretan egin zutena egiteko. Energia eta pazientzia arratsaldero Bilbo erditik kotxez ibiltzeko. Energia ere aldizkari hau zure eskuetan jartzeko. On dagizula!!!

PRONTXIO

DISKO ALA DISKA?

Durargon "Euskal liburu eta **diska** azoka" ospatzen ari zen egunetan, bueltaka erabili nuen hitz hori neure buruan. Zer dela eta aukeratu ote da a letra, bukaerako letra bezala? Hortik aparte, egunero, irratia piztu eta **dis-ka** gora eta **diska** behera, aspertzearaino entzuten dugu hitz berbera. Beraz, dirudienez, oraintsu asmatu den edo erabiltzen hasia den hitz horrek, arrakasta handia du, ez baitu inork protestatzen.

Nik, ostera, ez dut egoki ikusten; eta artikulu honetan beraren desegokitasuna adierazten saiatuko naiz, bide batez **disko** hitzaren alde agertuz.

Espainola, frantsesa eta beste

Ez dut ukatzen hitz hori maileguz hartu denik eta ez maileguz hartu behar denik ere, nahiz eta mailegurik gabe ere, zabalkuntza semantikoz edo bestela, zerbait egoki aurki zitekeen (txirringa, gurpil edo antzeko hitzen bidetik). Edozein kasutan, ez diot oztoporik ikusten maileguari, fonetikoki ere euskal itxura baitu (-sko/-ska horrek behintzat).

Mailegua hartzerakoan, eredu gisa frantsesa ala espainola hartzean datza arazoa, ene ustez. Izan ere lehenago ere hainbeste aldiz planteatu da arazo hau, hitz tekniko batzuren presaketan, adibidez. Frantsesez e letra mutuaz idazten diren hitz batzuren kasuan, era honetako zalantzak agertu dira:

espainolez	frantsesez	euskaraz
gramo	gramme	gramo/grama
kilogramo	kilogramme	kilogramo/kilograma
litro	litre	litro/litra

Izatez, hain urrun ez den garai batetan, **a** bukaeradun hitzak proposatu ziren Euskaltzainditik bertatik, horren lekuko "Zortzi urte ikastola hiztegia" (1975. urtea) dugularik, na-



hiz eta gero **gramo**, **litro** eta antzekoak hobetsi diren. Edozertara, oker ez banago, logika berberari jarraikiz sortu da **diska** hitza, hots, eredu frantsesari jarraikiz.

Eritzit eztabaidagarri bat

Zer dela eta batzuk hobetsi dituzte eta oraindik ere hobesten dituzte **a** bukaeradun hitzak? Ene eritziz, euskaldunon arazo psikologiko bat dago tartean. Geure inguruan dugun hizkuntzarekin dugun desberdintasuna gordetzen saiatzen gara gogor, horretarako era desberdinetako bideak erabiliz: batzutan garbitasunerantz joz, hau da, hitz ahalik eta garbienak (irakur bedi erdararekiko desberdinak) asmatuz eta beste batzutan, aurreko bidea antzua gertatzen denean, mai-

legua hartuz, baina hitzaren itxura ahal den gehiena aldatuz. Itxuraren aldaketak euskararen joera fonetikoaren arauera gertatzen dira batzutan, hala nola, **comprar** — **gonbaratu**, **cambio** — **gambioa** hitzen kasuan. Bestetan, ostera, guztiz alderatiz egiten da, desberdinak izan nahi dugula expreski adierazteko edo, hala nola **gato** — **katua**, **bote** — **potea/potoa**, **gaceta** — **kazeta** hitzen kasuan. Agian konturatzeke egiten dugu hori, defentsabiderako erreflexu gisa. Eta ez diot gaizki dagoenik, horrela egiten duguna baino, zeren, adibidez, Iparraldeko euskaldunek lasai esaten baitute **gautua**, frantsesez chat esaten baita.

Labur esanda, Hegoaldean **diska** esaten bada, espainolezko **disco** hitzetik gehiago desberdintzeagatik dela uste dut. Ez dut uste bestelako arrazoirik egon denik, agian arrazoi hori inkontzienteki erabili bada ere.

O letra erabiltzearen alde

Dena den, nik hobeto erizten diot **disko** hitzari eta zergaitikoa esango dut. **Diska** hitza, izatekotan, **a** organo koduna izango litzateke, **disk** hitza ez baitirudi egoki; eta **a** itsatsia edukitzean, **a** itsatsidun hitzetan sortzen diren oztopo praktikoak sortuko lirateke hemen ere, **o** letrarekin sortuko ez liratekeenak. Ohar gisa, diodan, **u** letra ere proposa zitekeela; baina, dirudienez, honelako kasuetan **o** letra nagusitzen ari zaio.

Hortaz, **diskoa** egokiago ikusten dut, bai deklinabiderako eta bai fonetikari dagokionez. Hala ere, honetaz, hitz hori egunero erabiltzen dutenek dute hitza: irratietako hizlariak, diskoetxeetakoak eta antzekoak. Behar daba, hor ere "zenbat buru, hainbat aburu". Edozertara, ene eritziz, "Euskal Liburu eta Diskoen Azoka" egoikiago litzateke.

J.R. Etxebarria

EUSKAL ANTZERKI TALDEAK, JO TA KE LANEAN

Ez da lan erraza euskal antzerkiaren egoerari diagnostiko bat egitea, alde batetik euskararen egoera larraren isla delako, eta kasu gehienetan ez duelako ikuslegoaren harriera lortu bestetik.

Usario-antzerkitik panfletura iritsi da askotan, pastoralak ireki eta markatu zuen bidea egokitu gabe utzirik. Dudarik gabe, hori ez da euskal antzerkiarentzat bide bakarra, baina nolabait justifika lezake, zenbait kasutan behintzat, gaur arte eta gaur egun munduan egiten den antzerki lana ez ezagutzea eta ez irakurtzea.

Dena dela, nahiz eta batzuk beren pesimismoa garbi azaldu, asmo onak ere badaude ghetto honetan. (antzerki lan bat ikusteko, Donostian behintzat. Banketxe baten asmo kulturaldo Sto Tomas egunaren zai egon behar badugu, ez zait astakeria iruditzen ghetto deitzea). Antzerki eskolaren fruituak ez ditugu oraindik ezagutzen, baina kultur politika bat eratzen ez bada, hori ere ez da euskal antzerkiak behar duen soluzioa izango.

Abenduaren erdialdean euskal antzerki taldeak bildu ziren Donostian. Beren lana bukatu ondoren, prentsaurreko bat egiteko asmoz prentsa-bide guztiei deitu zieten. Lerro hauetan ez dut talde hauen salaketak ixildu nahi, Anaitasuna eta Telenorte, Iriondo zela medio, bakarrik azaldu ginelako, ez baita hori talde hauen lanek behar eta merezi duten oihartzuna.

Bazkaldu baino lehenago bost minutu izan nituen Antzerkilarien Biltzar honen ordezkariekin hitz egiteko. X. Ansola, Martín Idiakenez, Daniel Landart, Iosu Makutso eta Alberto Gorritibereak horrela erantzun zidaten.

– HORRELAKO UNETAN, BETI GALDERA BERBERA MURGILTZEN DA GURE BURUAN: ZEIN DA ZUENTZAT ELKARTE HONEN HELBURUA?

– Elkarte honen helburua garbi



dagoela uste dut: Nolabait, euskal antzerkia indartzea eta bizitzea, bapitat.

– ZUEK AZALTZEN ZARETENEZ, EUSKAL ANTZERKI TALDEEN BILTZARRA OSATZEN DUZUE, OINARRITZAT EUSKARAREN EDO GURE HIZKUNTZAREN ERABILKETA JARTZEN DUZUE. EUSKARA «EUSKALDUNEN» ARAZOA SOILIK EZ DENEZ GERO; ZER HARREMAN DAUKAZUE EUSKAL HERRIKO ERDAL ANTZERKI TALDEEKIN?

– Beharbada esan behar dugu orain arte ez ditugula behar genituzkeen harremanak eduki, edo behintzat ez direla oso zabalak izan. Harreman batzu izan dira, baina nahiko motzak eta uste dut bide desberdinetik goazela. Erdal taldeek, askotan, nolabait beste antzerki ikuspegi batzu dituzte eta beharbada gu gehiago zentratzen gara euskal kulturaren antzerki motan.

– ZUEN ARTEAN, TALDE GUZTIETAN BEZALA, EKONOMI ARAZOA KONTUTAN HARTZEKO PROLEMA BAT IZANGO DA. GAUR, ZUEN BILERAN EUSKO JAURLARITZAREN ORDEZKARI BAT IZAN DUZUE.

NOLA IKUSTEN DUZUE SUBENTZIOEN PROLEMA? ZER BALDINTZA PROPOSATUKO ZENUTEKE DIRU HORI BANATZEKO ORDUAN?

– Subentzioei buruz hauxe uste dugu: Aurten presupostu bat prestatu da eta gure eritzia hor lortzen dugun dirua biltzar bezala lortuko dugula da. Taldeek egingo dituzten ekakizunak Biltzarrak bideratuko ditu eta diru hori, Biltzarrera iritsi ondoren, biltzarrak berak erabaki beharko du talde konkretu bati zenbat diru eman, zenbat utzi ikastaroak antolatzeke, edo beste lan batzu prestatzeko, etab. Gainera, garbi dugu banaketa hori zazpi herrialdeetara iritsi behar dela.

– Nik hori luzatuko nuke, Biltzarrak plangintza bat egin behar duela esanez; eta plangintza horren arabera mesedezko diren laguntzak hartuko ditu, zazpi herrialdeetan banatzeke gero.

– BESTE ARAZO BAT IZAN ZITEKEEN NOLA IRITSI, ZER BIDE ERATU ZUEN LANA IKUSLEGOAREN GANA HURBIL DADIN.

– Ene ustez, arazo hori, alde ba-



doren, martxan ipini beharko du onartutako plangintza hori. Teknika aldetik ere ikastaro batzu antolatu beharko ditugu. Ezin dugu ahaztu ere haurren maila; eta Biltzar honek erantzun bat eman behar die umeei, saiatu behintzat ikastoletara iristen.

– GAUR GURE ARTEAN IPARRALDEKO ORDEZKARIEN ARTEAN DANIEL LANDART EZAGUNA DUGU. NOLA IKUSTEN DUZU, DANIEL, IPARRALDEARI DAGOKIONEZ, EUSKAL ANTZERKIAREN EGOERA, IDAZLE ETA TALDE ALDETIK?

– Idazle mailan suerte gaitzadukagu, zeren 30 urtez Larzabal ukan bait dugu, eta urtero urtero antzerki berriak asmatu, kreatu bait dutu. Larzabalen ondoan Monzon eta beste batzu ere ukan ditugu. Baina zoritxarrez bat zendu da eta bestea agortu. Beraz, azken urte hauetan neronek antzerki lan batzu idatzi izan baditut, momentuan ni ere pixka bat nekatu naizela eta talde lanak sortzen ditudala gertatzen da. Beraz, azken 10 urte hauetan antzerkiak, lehen bezala, iraun egin du, taldeak izan dira eta norbait egongo balitz gehiago dedika litekeena, 5 antzerki izatekotan partez, ba, hamarretara irits gaitezke, pentsatzen dut. Gainera Biltzar hau itxaropen bat izan daiteke, politika



etik, ekonomikoa da. Herrietan, horrelako prestaketa bat egiteko diru bat behar dela ikusten da eta orduan Udaletxeetara edo Aldundieta-
ra diru eske joan behar da. Batzuetan, azken egunetan Oiartzunen esate baterako, Udaletxeak ez du dirurik eskeini, kulturak autofinanziatua izan behar duela esanez; eta gaur egun autofinanziazio hori oso zaila dela ikusten dugu denok. Talde batek, urtean zehar, beti dauzka gastu batzu (ekipoaren mantenua, jantziak, jende berria, propaganda, etab) eta horretan diru bat joaten zaizu, eta nahi ta nahi ez, talde bezala zerbait kobratu behar dugu, lana eskeintzean.

– Nik ere esango nuke zirkuituak Biltzarrak eratu behar dituela. Zirkuitu horiek ahalik eta zabalenak izan behar dute. Herri batera joatean, bertako Udaletxearekin, ikastolarekin, kultur elkarte guztiekin kontatu beharko dugu. Eta azkenik Aldundiekin ere kontatu beharko dugu, Euskal Herriko herri kokorren eraino iristeko.

– HEMENDIK AURRERA, ZER ASMO DUZUE, BILTZAR BEZALA, LANARI DAGOKIONEZ?

– Bileran aipatu dugunez, Biltzar berri honek plangintza bat egin beharko du eta talde guztiei azaldu on-



bera Ipar eta Hegoaldean jarraituz.

– USTE DUZU ORDUAN BILTZAR HONEN LANAK SOLUZIO BAT EKAR DEZAKEELA, DENON LANAK EZAGUTZEKO?

– Politika bat asmatu behar dugu, bai Iparralderako bai Hegoalderako, benetan 7 herrialdeetara zabalduko den euskal politika bat.

Gainera badago beste gauza bat biziki garrantzizkoa eta orain arte inork aipatu ez duena: Elkarrekin erabaki du poliki poliki 2 liberatu sortuko dituela eta hori pauso handia izango dela pentsatzen dut; elkarrekin egin behar duen plangintza eta zirkuituen arazoak soluzionatzeko bidean jarriko gara behintzat, bi liberatu horiekin. Horrela, hegoaldekoak Iparralderat etor daitezten eta alderantziz lortuko dugu, eta hori antzerki eta euskararen aldetik oso ona izan daiteke Euskal Herriarentzat.

* * * *

Talde hauek esperantzari ireki nahi dioten leihoa, denon artean zabaldu behar dugu, ez baita euskal antzerkiaren egoera bakarrik dantzaz dagoena.

XABIER PORTUGAL



GEURE "DEMO- KRA- ZIAN"



«Demokrazian» gaude, omen gaude, gaudeke. Franco diktadorea (nola dei egin behar diogu? Honixe ere «demokrata»? beraxe izan baitzen oraingo sasikume demokrata guztien iñudea) hil zen, baina hil zurretxotik, bere izaera erekutsi zuen, gure «Txiki» eta «Otaegi» gudarien eta FRAPeko «Baena», «Sanchez Bravo» eta «Garcia Sanz» borrokalarien hil-sententzia sinatzean. Diktadorea putrea genuen, baina ez edo zelakoa: putreak hildako animalien okela jan ohi du, ez du hiltzen, Francok ordea lurpean ere harrapakina behar zuen, bere agintaldia, zapalkuntzaren izugarria betiraunerazteko. Bost borrokalariren hilketak izan zen beraren azken putre-akintza. Hortxe daude, bada, Francoren hilotzar izugarrian gure hilak. Denak: hil aurretitxoan eraman zituenak, gerrakoak (Gernikakoak...), gerraondokoak; balaz josiak eta hilak, suz hilak, torturak hilak, ezbeharrak hileraziak...

ETA sortu zenetik izen propioak ba dira, herri oso baten oihartzun, dizdira eta expresio direlarik; borrokaren seinale gardena: Eustakio Mendizabal, Txabi Etxebarrieta, «Txiki», Otaegi (izen hau idaztean idazmakina pixkat tratatzen zait eta

ezin gera naiteke momentutxo batez bederen pentsatzeke. Hain zuzen ere beraren jaioterrian nago hau idaztean), Argala, David, Goko... Azkenekoan «Gogor» eta «Jose-txu» izan dira eroriak, burrukan eroriak. Hauek guztiak borroka armatuan saiatuak, herriaren abangoardia. Baina beste hamaika hil asko gertatu da ere azken urteotan, batzu anonimoak, edo ardi anonimo pasatzen direnak, beste batzu oso ezagunak. Denak, ordea herriarengan itsatsita, herriaren kontzientzia kolektibo orokorrean batikortuak.

Putre nagusia hil zenean, zer espero zitekeen? Ezertxo gutxi. Berak izendaturiko erregea izango zen estatuauren buru, «monarkia» izenez bataiatutako diktadura berriaren buru. Geraren putrakumeak jarraituko zuten gidaritzaren, giñolaren hariak gidatuz. Armada berberak jarraituko zuen, depuraziorik gabe, legionariak eta guzti. Armada ahalguztiduna. Goardia zibil berbereak jarraituko zuten, anitzetan besteren odolez gorrituriko uniforme berdeekin, txarolezko trikornio beltz, bildurgarriekin. Polizia berberexea, grisezko ideiekin. Oro zapaltzailearen zelatari, zaintzaile fidel, torturatzaile abil.

Boterean mantendu ahal izateko,

Europa «librearen» markoan, apaintzaile eta pintatzaile trebeak bihurtu zitzaizkigun putrakume guztiak. Fatxaden garbiketa etorri zen: polizia- ren uniforme grisena ordez, marroi sugestiboak, txapel eta guzti; trikornio gutxiago (baina goardia zibil gehiago), trikornioen ordez kapelak; armadan, «El Alcazar» eta «Fuerza Nueva» aldizkariekin batera, «ABC» pluralista sartu zen; hauteskundeak izan ziren; parlamentu «demokratikoa» eratu zen; konstituzioa egin zen —Euskal Herrian aho batez ezetsia—... Fatxada apaindurea zegoen. Ondoren makila jo ta ke, estatu demokratikoa ota barneko «oposizioaren» oneritziak. Azken urteotan haragi bizitan senti ahal izan dugu zapalketa ankerra. Manifestazioak berriro galeraziak eta egur berok alaituak (oraindik tristeki gogora deza-kegu, nola poliziak batzuri babesa ematen zion bitartean, besteri egurra: Bilboko «usoen» manifestazio gogoangarria); gudarien hilketak garo eta ugariagoak; langabezia gero eta konponezinagoa...

Une honetan ETAKo hirurehun preso baino gehiago dago gartzelatan, Francoren garaian baino de- xente haboro (topikoa ere hauxe errepikatzea?). Inoiz baino txarrago

erabiliak, beraientzako gartzela bereziak superfistikatuak aleman erdukoak eraikiz: Herrera de la Mancha, Puerto de Santa María, Nanclares; ahalik eta urrutiragotuz. Edozein momentutan izan daiteke «omen»tzako pertsona bat detentua eta terroristatzat salatua, gero berehala libre geratzeko. Noiznahi izan daiteke bat eraile, piztiak bezalaxe edo askozaz krudelkiago tratatua: Arregi (mila tortura ondoren hila), Almeriako kasua, GRAPOkoak Catalanian... Gogor eta Josetxu izan dira gure azken gudari ehizatuak. Ehizaldia irekita dago, tiro eta tiro, zen terroristari! (lehen nola esaten ziren? Ah, bai!, tiro beltzari, tiro gorriari!).

Azken bospaseiurte honetan erre-

Picassok ikusi izan balu bere koarduari egin zitzaion harrera!!! Tanketa eta fusil tartean. Orain Madrilen sartu digute. Madrildik heldu zen Gernika txikitzeke, erretzeko agindua; Madrigoek berberexek ipinerazi dute Madrilen. Guztiarekin ere, Isidro Monzon Olasok ondo dioen bezalaxe, benetako «Guernica» Euskal Herriko etxe guztietan dago eskegita.

«Guernica» bahituta, gure presoak bahituta, errefuxiatuak bahitu legez tratatuta: Herri osoa bahitu eta ezereztu nahi dute, ixilpetu. Argi dago, baina, ez dutela lortuko. Otsailaren 23 famatua egin da, egun lazgarria izan zen benetan. Kolokan ipini zen muntaia guztia. Eta zer gertatuko ote da gertaerotan parte

«Le Monde» frantses egunkari ospetsuan estatu-kolpe leuna izan dugula deriztotelarik...

Zer egiten ari dira autonomiatxo-estatuarekin? Zer da LOAPA hori? («nos quieren dar por el cupo», diokute eufemistikoki (EGlkoek), ez ote ezpataren ezpata? Zer diozue Gobernu Baskongadokoak? (edo, Eusko Jaurlaritzakook, nahiago baduzue). Zer esan duzue azkenean, PNVtarrok, Lemoizi buruz? Horixe da argi eta garbi hitz egitea, alajainkoa! Galdarak milaka datozkit, nola ordenatu ere ez dakit ia.

Espainiar gobernuak betidanikoxe bidetixe jarraitu arren, Euskal Herriak ez du etsi ordea, ezta etsiko ere. Ni triste nengoen «konstituzioaren egunean, triste».



fiuatiuen kontrako atentatuek etengabe jarraitu dute, inpunitate osoz. Hendaian egindako sarraskien argi asko geratu zen noia ekiten duten espainiar ultraeskuindar-poliziek, argiro oso goitik babestuak daudela...

Eta orain aldaketarekin zer? Giscard geneukan, Miterrand daukagu, sozialistak. Gure errefuxiatuak hala ere lehen bezala harrapatuak dira, «Yeu»ra konfinatuak, beste zenbait lekutara herbesteratuta inoiz baino gendarme gehiagorekin... Zer itxaron dezakegu?

Picassoren «Guernica» famatua azkenez ekartzea lortu dute Madrillgo jauntxoek, eta ez ote dugu entzun behar izan Cavero jaunaren ahotixe, hauxe dela azken errefuxiatua? Gure errefuxiatuek zer senti izango dute hori entzunda? Dena faxadaren pintaketa demokratikoa.

hartu zutenekin? Nola bizi da Tejero? Nor eta Caruana generale izendatu dute kapitain general! Nor eta Fernandez Posse generala oraino Galizian kapitain general diskurtso ospetsuaren ondoren! Nori eta Millans del Boschi medaila bat! Ezpaten oihartzuna gero eta ozenagotzen da instantzia guztietan. Oraintsu ikusi dugu polizia militarra La Coruña manifestazio baten kontra, Madrilen diskoteka batetan soldaduak sartu eta bitartean kapitain batek mikrofonoetatik hitz egiten, «Espainia» salbatzeko laguntza eskatuz. «Ehunen manifestu edo agiria» zabaldu da berriki! JUJEMekoek lasai egon gaitzen eskatzen dute, neurriak hartu direla... Baina gero, kapitain generalek Juan Carlosekin bilera bat eduki zutela. Jakin izan da, zenbait gauza eskatuz edo beste la arazoak sor zitezkeela armadan.

Orain, zilegi bekit poesiatxo hau gure azken eraildakoen gorazarrez.

Harri borrokalarri baten altzoan hazi zineten,
borroka horrexetan
gaztetatik sartu.
Iparraldera hegaz egin behar betiere ordez Euskal Herrian Jarraitu!
Bizimodu gogor, latza,
hautatu zenuten,
arriskuz, beldurrez, herri-miñez,
urrun-miñez;
ez inoiz baina etsipenez.
Euskal Herriaren askatasuna ikusten zenuten,
horixe behar lortu!
ez zarete hil, ezta hilen ere,
gugan erneko da
zuek ereindako hezia.

KARLOS SANTISTEBAN

anaitasuna

hilerro informazioa euskaraz

ZABALBIDE, 68
BILBO-6

